

gaia

gau erotiko-pornoa  
hell doradon

arte

2 film labur gasteiztik

historia

galindez

gizartea

okupazioa

kirola


koldo fdz. de larrea

# GEU

2,40 €

2006ko apirila

160



kepa murua&basarai argitaletxea

©'poemas del caminante'

# CEGASA

## Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK




Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ  
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 [www.cegasa.com](http://www.cegasa.com)

# SUMARIOA 160



**zeregin** 4  
apirileko agenda

**iritzia** 6  
interpreteak eta epaiketak

**geupertsonaia** 8  
kepa murua idazlea & bassarai argitaletxea

**kaletik / idazleenzutabea** 12  
piterman & alaves / karmele jaio

**euskaltasunean. gasteiz** 13  
marisa diaz de arkaia

**geugaia** 15  
gau erotiko-pornoa hell dorado elkarte

**batbitan** 18  
xiba, euskal joko 3. topaketak

**artetxokoa** 20  
2 film labur gasteiztik:  
'itxoiten' & 'eskuak ukabilak'

**proposamenak**  
**haur & gazte literatura** 22  
cd-a & liburua & zinea / txabi arnal

**orribatean** 23  
bagare elkarte gastronomikoa

**orribatean** 24  
okupazioa gasteizen

**lauhitzetan** 25  
e.t.a-ren su-etena / beste

**bidaia / errezeta** 26  
islandia / tutuak

**arababixotzian /  
historiazutabea** 27  
cristina fernandez / erlantz urtasun


**historia (Euskaraz)** 28  
galindez

**batbitan** 30  
koldo fdz de larrea txirrindularia

**umorea** 32  
iñigo sarasola

**geu elkarte** 33  
kultur eskaintza

**orribatean** 34  
'amaren eskuak'. karmele jaio




Laguntzaileak:



Eusko Jaiak  
Kultura Saila



Arabako Foru Aldundia  
Kultura Saila



CAJA SANIDAD  
EUSKALIZATUTAKO KULTURA

**1**  
**PIROPOEN LEHIAKETAREN BOZKETA**  
> botoa emateko aukera 14 finalisten artean:  
[www.aisia.net](http://www.aisia.net)  
apirilaren 14ra arte

**2**  
**HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGUNA 2006**  
> santurtzin, egun osoz euskal herrian euskaraz  
ikus. 5. orr  
[www.ehe.euskalerrria.org](http://www.ehe.euskalerrria.org)



**3**  
**'HARTU OLATUA' UDAL LIBURUTEGIEN EKIMENA (APIRILEAN.HIZK)**  
> ilustrazio lehiaketa, liburu azoka, liburu erakusketa eta salmenta, zenbait idazleren hitzaldiak, ipuin-kontalariak  
apirilaren 3tik 25era  
gasteizko udal liburutegi publikoen sarea  
ikus. 5. orr  
[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



**4**  
**GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06**  
> liburua: xabier montoia, 'hilen bizimoldea' trilogia: hezur gabeko hilak, blackout eta elektrika, susa 1999 eta 2004 dinamizatzailea: iban zaldua  
hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00etan  
>> maiatzaren 25ean mintzagai izango den liburua: jaroslaw iwaszkiewicz, wilkoko andereñoak, alberdania-elkar 2004 [1933]  
geu elkartearen ekimenez | [www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com)



**7**  
**EUSKARA SUSPERTZAILE IKASTAROA**  
> izena ematea: apirilaren 7a baino lehen  
ikastaroa: apirilak 18-21 (4 ordu saio bakoitzean);  
ordutegia: 16:00-20:00  
ematea: urtxintxa eskola  
antolatzaile: euskharan elkarte (amaia zentroa).  
945288275 / [euskhara@euskalnet.net](mailto:euskhara@euskalnet.net)  
[www.urtxintxa.org](http://www.urtxintxa.org)



**7**  
**EUSKARAZKO LANTEGIAK: BEIRA-ALEAK**  
> lantegi irekia (izena ematea: jarduera hasi arteko epea- 21:00ak arte)  
gasteizko aldabe gizarte-etxean, 22:00-24:00. doakoa  
[www.gauekoak.com](http://www.gauekoak.com)  
kolore biziak elkarte:  
945204009



**8**  
**GOR JAIA. 15. URTEURRENA**  
> taldeak: sök, stupenda jones, leihotikan, kerobia, skunk, lenda-karis muertos, brigada criminal...  
irufeko artsaia aretoan, 22:00-2:30. sarrera doan  
ikus. 5. orr  
[www.gordiscos.com](http://www.gordiscos.com)

**9**  
**MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06**  
> urieta (1133 m)  
goizeko ibilaldia  
arduraduna: Edurne  
945146296  
geu elkarte mendi taldea  
[www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com)

**17-23**  
**ANTZERKI TAILERRA: 'ADEL' ARTEDRAMA EUSKAL LABORATEGIA**  
> antzerkiola imaginarioa aulestian (lea-artibai), apirilak 17-23  
[info@antzerkiola.com](mailto:info@antzerkiola.com)  
944444379  
[www.antzerkiola.com](http://www.antzerkiola.com)

**21**  
lehiaketa: ipuin erotikoak  
> euskarabila ipuin erotikoen 11. lehiaketa  
lanak aurkezteko azken eguna: apirilak 21  
oinarriak: [euskarabila@topagunea.com](mailto:euskarabila@topagunea.com)  
antolatzailea: euskarabila elkar-tea (basauri)


**21**  
**ANTZERKIA: ANTZERKIOLA IMAGINARIOA**  
> 'kaputen kanta'  
gasteizko aldabe g.e-ko antzokian, 20:30  
sarrera: 8 euro (6 euro, 30 urtetik gorakoek)  
geu elkarte & gauekoak  
[www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com) / [www.gauekoak.com](http://www.gauekoak.com) /  
kolore biziak elkarte: 945204009



**22**  
**ITZAL-ANTZERKIA: 'ZAPATARIA ETA PRAKAGORRIAK'**  
> gasteizko montehermoso kulturunean, 18:30  
[www.vitoria-gasteiz.com](http://www.vitoria-gasteiz.com)

**25**  
**KULTUR ERROTA: FILM LABURRAK**  
'itxotien' & 'eskuak ukabilak'  
> gasteizko parral tabernan, 20:30ean  
geu elkartearen ekimenez  
[www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com)

**26**  
**HITZALDI SORTA: EUSKAL NARRATIBA GAUR, LITERATURA ETA GATAZKA**  
> eider rodriguez: ume bat gerrari begira  
gasteizko filologia, geografia eta historia fakultateko gradu aretoan, 10:30ean  
eratzaila: jon kortazar  
[www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org)



**27**  
**IPIUIN LEHIAKETA**  
> ipuinak aurkezteko epearen amaiera  
antolatzailea: diocesan ikastetxea  
[www.diocesan.org](http://www.diocesan.org)

**28**  
**PRUDENTZIO DEUNAREN EGUNA**  
> armentiarako erromeria egun osoz



**29**  
**SKA JAIALDIA**  
> skarface & garagardo gura taldeak  
gasteizko azkena aretoan, 21:00etan  
sarrera: 9 euro (12 euro, 12 urtetik gorakoek)  
[www.gauekoak.com](http://www.gauekoak.com) / kolore biziak elkarte: 945204009

**30**  
**ERAKUSKETA: ERRETRATUAK. GORKA SALMERON**  
> apirilaren 30era arte  
gasteizko ignacio aldekoa kultur etxean  
informazioa: 945181818  
[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



## euskara suspertzaile ikastaroa

antolatzaile: euskharan elkarte (amaia zentroa. 945288275  
[euskhara@euskalnet.net](mailto:euskhara@euskalnet.net))  
ematea: urtxintxa eskola  
izena ematea:  
apirilaren 7a baino lehen  
ikastaroa: apirilak 18-21 (4 ordu saio bakoitzean)  
ordutegia: 16:00-20:00  
hartzailak: hezitzaileak, astialdiko begiraleak, irakasleak, jantokietako begiraleak, ludoteketako begiraleak, guraso elkarteak, emakume elkarteak, astialdi taldeak ... gaiarekiko interesa duen edonor. taldeetan gutxienez 8 eta gehienez 20 pertsonak parte hartuko dute.  
[www.urtxintxa.org](http://www.urtxintxa.org)

## diocesan ikastetxearen

### 4. ipuin lehiaketa

>edozeinek har dezake parte, kategoriatan hauetan.  
-a kategoria: lehen hezkuntzako 5. eta 6. ikasturteetako ikasleak.  
-b kategoria: dbh.  
-c kategoria: batxilergoa eta heziketa zikloak.  
>lanek gehienez 7 folio eta gutxienez 3 izan behar dituzte.  
>diocesanaseko edozein ikastetxetan aurkeztu behar dira apirilaren 27a baino lehen.  
>bertain informazio zehatza dakarren orri bat eskura daiteke.  
[www.diocesan.org](http://www.diocesan.org)

## piropo lehiaketa

dagoeneko bukatu da piropoak bidaltzeko epea eta hemendik aurrera apirilaren 14a arte, 14 finalisten artean botoa emateko aukera dugu. guztira 744 piropo jaso ditu aisia elkarteak eta parte hartu duten guztiei eskerrak ematen dizkie. orain botoa emateko txanda da [www.aisia.net](http://www.aisia.net) web orriaren bitartez. animo, boto ematen dutenen artean ere sariak egongo dira eta!

## gasteizko udaleko kultura sailaren kultur ikastaroak

gasteizko udaleko kultura sailak kultur ikastaroak izeneko programa antolatzen du urtero, gizarte etxeetan burutzen dituen ikastaroen programazioaren barruan. hainbat espezialiteri buruzko ikastaro teorikoak dira kultur ikastaroak, eta herritar guztiei kulturaren alorretako ezagupenak zabaltzea dute helburu, adituen lanari esker, era atsegin eta didaktiko batean. 2006-2007 ikasturteko kultur ikastaroen programazioa gauzatzeko, proiektuak behar ditu kultura sailak, eta horretarako honako deialdi hau zabaldu du: >kultura ikastaroak burutzeko proiektuen poltsa osatzeko deialdia. deialdi hauen oinarriak argibide eta erregistro bulegoan (plaza berrian) daude eskuragai, eta proiektuak bertan aurkeztu beharko dira apirilaren 18 (barne) baino lehen. argibideak: 945 16 13 48. [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)


## landare berezien 4. azoka

apirilaren 1 eta 2an iturrarango lorategi botanikoan (pagoetako parke naturala, aia, gipuzkoa) landare berezien 4. azoka gauzatuko da. 38 mintegik hartuko dute parte. kontinente guztietako landareak ikusi eta, hala nahi izanez gero, salneurri paregabearen erosteko aukera egongo da; gure artean landare ezezagunak badira ere, arazorik gabe lorategietan edo etxeko leihoetan zaindu ditzakegu. azokari buruzko informazio gehiago (ordutegia, nola iritsi, triptikoa deskargatu, mintegien zerrenda ikusi, etab.): [www.iturraran.org](http://www.iturraran.org) 943 83 53 89

## gor jaia. 15. urteurrena

aurren hamabost urte beteko dira gor diskoetxea sortu zutela. urtemugak ospakizun berezi bat behar duelakoan, jai handi bat antolatu dute. apirilaren 8an izango da, larunbatarekin, iruñeko artsaia aretoan. gaueko 10:00etan hasiko da, eta 02:30ean bukatu. sarrera dohain izanen da, eta bertan ariko diren taldeek ere musutruk joko dute: sök (iruñea) ezinean (azpeitia) stupenda jones (sakana) leihotikan (iruñea) brigada criminal (laskao) kerobia (iruñea) chicarela (lizarra) lendakaris muertos (iruñea) skunk (hendaia)

denok gonbidatuta zaudete! halaber, gor-en webgune berria [www.gordiscos.com](http://www.gordiscos.com) martxan dago jada.



## III. hizkuntza eskubideen eguna santurtzin

euskal herrian euskaraz-ek III. hizkuntza eskubideen eguna egingo du apirilaren 2an. lesakako eta oiartzungo edizioen ondoren, santurtzira egingo dute salto aurten. hizkuntza eskubideak eta ofizialtasuna ardatz dituen egunerako deialdia egin nahi dizue ehe-k mezu honen bidez eta bai zu, bai zure inguruan dituzun euskaltzale guztiak aldarrikapena eta jaia uztarturik dituen egun honetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte.

[www.ehe.euskalherria.org](http://www.ehe.euskalherria.org)

## udako hizkuntza eskaintza

hainbat baloreetan oinarritutako hezkuntza integralaz baliatuz, euskal herriko ume eta gaztetxoie udara gaitzeko, frantsesa, ingelesa- lantzeko eta ikasleen garapenerako lagungarriak diren egitasmoak eskaintzen ditu ikastolen elkarteak. egitasmo hauen artean, udaleku irekiak, udaleku itxiak, murgiltze programak eta atzerriko egonaldiak ditugu: enjoy english; ingeles eta euskal udalekuak; eta atzerriko egonaldiak. informazioa: bizkaiko ikastolen elkarte, 94-4354340. [www.bieikastola.net](http://www.bieikastola.net)

## 'hartu olatur' gasteizko udal liburutegien ekimena

### GOLURI JAUREGIA

**Apirilaren 4a, asteartea 20:00**

"Baroja y la Guerra" Pio Barojaren berrikuntza 50. urterotomaren erabilpena. Alabai-Argentea. Mota-mota: Itzi Kortzen (haztegia). Perte-bertakak: Miguel Sánchez-Olea (idazlea eta Barojaren adina) eta Fernando Pérez Olea (Pío Barojaren lanaren argitaratzailea).

**Apirilaren 11a, asteartea 20:00**

Pérez Lemara (haztegia).

Hizkuntza: "Pájaros de cristal".

**Apirilaren 18a, asteartea 20:00**

Rosa Rega.

(idazlea eta Espainiako Literaturako Nazioarteko saria).

Hizkuntza: "Lovers and Vagabonds".

**Apirilaren 20a, osteguna 20:00**

José Antonio.

(idazlea).

"Crisis" (idaztegia).

Don Estanislao erreialdiak, ofizial erreialdiak eta diktadore erreialdiak. Guri liburutegian erabiltzeko pasatzen diren erreialdiak, diasporeak eta ofizial erreialdiak eta diktadore erreialdiak. Euskaraz.

**Apirilaren 21a, ostirala 20:00**

Galea idazlea.

"Alas de Lince" musikari eta poeta idaztegia.

Epistolak, Itxako Herriko eta nazioarteko egile 19 poema erreialdiak dira, 15 gutunak eta 4 rukunak. Musika: gitarra eta biolinak.

Análisis Fernández (idazlea, musikagilea eta biolinak-egileak) José Luis Sánchez (idaztegia), Juan José Mesa (gitarra idazlea), Fernando Villegas (biolinak-egileak eta biolinak idazlea).

**Apirilaren 25a, asteartea 20:00**

Kierkegaard eta Tegner des Tegner.

"Entre temps, dans une le matin".

Astoria: musika eta poeta idaztegia, euskaraz, frantses eta gutunak.

SARRERA DOAN jekusak heste arte 19:45etik sarrera sar daitzeko aretoa.

### PALACIO EUROPA

**Apirilaren 19a, asteazkena 20:00**

Alejandro RODRIGUEZ (idazlea eta argitaratzailea).

Hizkuntza: "Cahiers Méditerranée".

SARRERA GONBIT-TXARTELAREKIN.

Goluri jauregia apirilaren 11tik sarrera jaso beharrezkoa.

### GIZARTE ETXETAKO LIBURUTEGIAK

| lekua             | eguna  | jardura                                                                         | adina   | urdua       | aretoa      | hizkuntza |
|-------------------|--------|---------------------------------------------------------------------------------|---------|-------------|-------------|-----------|
| Pilarebe G. E.    | 10     | Hizkuntza: "Crisis" musika eta poeta idaztegia, euskaraz, frantses eta gutunak. | Helduak | 18:00-19:30 | Liburutegia | Euskaraz  |
| Hegabide G. E.    | 6      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | Helduak | 19:00       | Aretoa      | Euskaraz  |
| Iparralde G. E.   | 18, 19 | Lezioak: "Iparraldeko kultura" Maite Franko.                                    | Helduak | 19:00-20:30 | Liburutegia | Euskaraz  |
| Lekuak G. E.      | 3      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | Helduak | 19:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Alezkabeko G. E.  | 3      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Aldebe G. E.      | 11     | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Arribe G. E.      | 11     | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Arribebe G. E.    | 5      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Arribe G. E.      | 8      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 12:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Pilarebe G. E.    | 6      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Hegabide G. E.    | 4      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Iparralde G. E.   | 3      | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Judimenteko G. E. | 10     | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |
| Lekuak G. E.      | 20     | Idaztegia: "Análisis" Itzi Kortzen.                                             | 3-6     | 18:00       | Liburutegia | Euskaraz  |

IZEN EMATEA gizarte etxetako liburutegietan, martxoaren 29tik aurrera

### ETA GAINERA...

#### LIBURU AZOKA

Gizarte etxetako udal liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

Liburutegi guztietan.

#### LIBURU ERABILTZA ETA SALBESIA

Asistentzia:

Arabako Liburu Saltsailen Elkartea.

Epitafio plaza.

Apirilaren 22an (larunbata).

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.

19:00etatik 21:00etara.



[Joseba ossa altzibar,

euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarteko lehendakaria]

(erabili.com / 2006-03-14)

## INTERPRETEAK ETA EPAIKETAK

Txakurrarenak entzun behar izan ditugu, azken boladan, hedabideetan hauts handiak harrotu dituzten epaiketetan interprete edo itzultzaileek egindako lanaz. Irudi luke ez dagoela euskal interpreteen artean profesional onik, euskararen eta gazteleraren artean halako lana ongi egiteko gauza denik.

Ez da hori egia: profesional onak badaude, bikainak, baina dirudienez Justizia Administrazioak zeken jokatzeko bere interpreteen lansaria ordaintzerakoan. EIZIEn (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartean) zehazki dakigu, esate baterako, Auzitegi Nazionalak ez dizkiela ohiko tarifak ordaindu nahi kontratatzen dituen interpreteei, "garestiegiak" omen direlako. Ez da harritzekoa, beraz, interprete bila abiatzen denean, inolako kalitate irizpiderik eskatu ezinik, gehienez ere hasi berriak edo, besterik gabe, lanbideaz deus ez dakitenak eskuratzea. Arazo hori ez baita gertatzen soilik euskararekin; baita beste hizkuntza askorekin ere (errumaniera, arabiera, kurduera...).

Gainera, lan baldintza neketsu eta zentzugabeetara makurturik, interprete profesionalik onenak ere huts egin dezake. Lan ordu luze eta jarraituak, askotan giro larritasunez betean; lanerako bitarteko material desagokiak, interpretearen intimitatea batere ziurtatzen ez dutenak; eta ordainsari nabarmen kaskarra; horra interprete profesionalaren etsairik handienak.

Euskararen erabilera Konstituzioak berak babestua da. Herritarrek auzitegien aurrean euskaraz egiteko eskubidearekin bat dator, gure ustez, auzitegiaren betebeharra, interpretazio zerbitzu egoki bat eskaintzekoa. Batzuetan, horren mende egon daiteke, alde edo molde, babes juridiko eraginkorra.

Bi hizkuntza ongi jakiteak ez du inor interprete edo itzultzaile bihurtzen, legez jakiteak inor epaile bihurtzen ez duen bezala. Azken boladan justizia auzitegien aurrean interpreteek egindako "hanka-sartze larriez" barra-barra dabilzan albisteek ez diote, inolaz ere, laguntzen gure lanbidearen irudi onari jende artean. Uste dugu herri erakundeek, batik bat Justizia Administrazioak, behar diren erabakiak eman behar dituela arazo hori lehenbailehen konpontzeko. •

Herritarrek auzitegien aurrean euskaraz egiteko eskubidearekin bat dator, gure ustez, auzitegiaren betebeharra, interpretazio zerbitzu egoki bat eskaintzekoa.

**Zure denda erotikoa**

# SEX

**PITTILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA  
OIAZTUN

Obren egite eta zuzentzea

## ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



bar • restaurante • albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**IZARRA TABERNA - JATETXEA**

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

**XIXILU JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**UZTINTZA**

**KERAMIKA TAILERRA**

**KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

# Xabier

**taberna**

musika ona  
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Uetzal**

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

**BAR KLAKÉ**

KUTXA, 2

Tfno. 143883

GASTEIZ

**ARANBIZKARRA**

**ZURE AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16

Tfnoa.: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

eguneko menua

**DIBUtec**

Paper Berziak  
Arte Ederretarako Materiala  
Ink Jet original eta birziklatuak  
Bulego Materiala  
Enkoadernazioak  
Plastifikazioak  
Kamiseten Estampaketak  
Kopiak

**azkarprint**

Impresia / Inprimategia  
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

**EGUR**

Zurezko Teilatuak  
Muntaiak Garabiarekin  
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.  
Goian Poligonoa, Legutiano  
01171 Araba  
Tel.: 627 417 747  
Faxa: 945 465 921  
montajesegur@euskalnet.net

**eusko alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org  
c/ san prudencio 3  
gasteiz-erdialdea

**Gazte Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org  
c/ vicente manterola z/g  
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

**Argazki - Estudioa**

# Erramun

Heracio Fournier, 23  
Tfno: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5  
Tfno: 26 19 91 01004

**Sartu**

**Zure arropa eta oinetakoa**

www.sartudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

**BARRAL TABERNA**

Pauperdian, asteleroz astelero

**JANTOKI BEGETARIANO**

SAN FRANCISCO KAPERKOAREN KANTOIA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL.: 945 27 65 33

**TXUKUNA**

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:  
bainu-batak, oihalak,  
sukaldeko zapiak,  
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

**HEGOALDE**

Euskaltegia

**Matrikula zaitetz !!**

Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

KEPA MURUA:

*“Poesiak inoiz utziko banindu,  
beste bide batzuk aztertu  
beharko nituzke”*

josune velez de mendizabal

Hiria lehendik ere ezagutzen zuen  
Kepa Muruak, Gasteiza 1990.  
urtean lan-kontuak zirela-eta  
bizitzera etorri baino lehenago.  
“Orduan, baziren hemen idazle  
eta literatura-aldizkari batzuk  
bertako giro literarioa  
berpizten; hala eta guztiz  
ere, ene iritziz, nahiko  
ikuspegi mugatua  
zeukaten, eta, hori ikusita,  
hiri honetan egiten zen  
literaturari zabalkunde  
handiagoa eman beharko  
zitzaiola pentsatu nuen”,  
dio Bassarai  
argitaletxeko editorea  
eta poeta den  
zarauztar honek.

**Kepa Murua segidan poesiarekin loturiko izena da. Poesia zer den, nora doan, etorkizunik duen eta abarreko galderak sortu ohi ditu genero honek, poesiak berak alegia, bere inguruan. Zergatik?**

Egia esan, galdera horiek ez dira berriak, betikoak dira, eta edozein arte motak bere jardunaz egiten duen azterketaren baitan daude; poesiak ostera, badu besteek ez duten berezitasun bat: hitzaren erabilera hain zuzen ere. Hitz eguneroko tresna dugu komunikatzeko, baina poesiak hitzaren ohiko esanahia gaingitu egiten du, ezagutzaren eta pentsaeraren muina azaleratzeko. Horrela, bada, poesiak hasiera batean behintzat, inork ikusi edo ulertu nahi ez duen errealitatea erakusten digu, eta errealitate hori ez du inork ikusi nahi, geure buruaren edo garen horren isla itzultzen digulako.

**Poesia etengabeko hausnarketan dagoen generoa al da? (Zuk zeuk saiakera bat idatzi duzu honen inguruan, 'La poesía si es que existe'). Zeuk ere zalantzatan jartzen duzu edota kontraesana sortzen dizun egoeraren isla besterik ez da izenburua?**

*La poesía si es que existe* liburu baten izenburua baino zer edo zer gehiago da, poesia bera ere ulertzeko modu bat da, askotan ez baitakit poesia benetan existitzen den edo gizartearentzat baliagarritasunik duen. Dena den, baldin bada, garbi daukat sor daitezkeen galdera ezberdinei erantzuteko argudioen bilaketa dela, ezbaia baita sorkuntzaren eragile nagusia eta horretarako daukagun bide bakarra. Hori poesian ezezik, bizitzaren edozein arlotan ere gertatzen da. Ezagutza eskuratzeko, horrela jokatu behar dugu: berdin da politikan zein sentipenen alorrean. Ildo horretatik, *La poesía si es que existe* liburuan poesiaren aitzakiaz hainbat gauzaz mintzo naiz: maitasunaz, itxaropenaz, egun erabiltzen ditugun hitz baliokizunak...

**Literaturaz inguratuta bizi garen mundu honetan (idazle asko baina ez hainbeste rainoko irakurle, antza), zein tokitan dago poesia?**

Genero hau gutxi batzuen da, eta, oro har, bai irakurleek eta bai idazleek zeharka begiratzen diote. Horren gorabehera, uneren batean gehienek jotzen dute genero horretara, ikusi besterik ez dago zenbat idazle jotzen duen

bere burua poetatzat edota poetek idazten duten bezala idatzi nahiko luketenak zenbat diren. Ez da zaila hori ulertzea, azken finean poesia literatura hutsa dela ohartzen bagara. Ez du formazko loturarik, berrikuntzak gustuko ditu eta bere baitan narratiba, pentsamendua, aztikeria, musika, igarkizunak eta abar biltzen ditu. Gainera, gizakiak dena galtzen duenean, zer du, hitz minberatua, isiltasuna edo poesia... ez bada?

**Noiz hasi zinen poesia idazten? Zergatik egin zitzaizun erakargarri bere egunean? Zein izan zen idatziriko lehen poema?**

Neure burua irakurtzen gogortzen dut gaztetan, eta handik

gubxira naturaltasun osoz olerkiak idazten hasi nintzela oroitzen dut, hitzen musikarekin eta euren oihartzunarekin jolasten, irakurtzen nituen poetak imitatzen... Gogoan daukat oraindik ere hamazortzi urterekin idatzi nuen lehen poema: 'Ni farola banintz'. Euskaraz idatzi nuen eta hainbeste arrakasta izan zuen jendearen artean, ezen erabat txundituta gelditu bainintzen.

**Inoiz pentsatu al duzu poesia baztertea eta bestelako generoetan idaztea, hau da, buruhausteak eman al dizkizu inoiz poesiak?**

Poesia eta saiakera mundu honetan gauzak adierazteko ditudan baliabideak dira, nire baitako idazleak munduaren aurrean kokatzeko egin duen aukeraketa. Eta egiten nuenaz jabetu arte, hainbat egoera ezberdinetatik igaro banaiz ere, garbi esan behar dut sorkuntza poetikoak erosotasun eta ohiko tontokeria askotatik gorde nauela. Hala ere, batzuetan ni neu aberasten nauen jarrera horrek beste batzuk gogaitu egiten dituela sumatzen dut, esaterako bikotekidea edo lagunak, ez baitute ulertzen idazten ari zarenean munduan besterik ez dagoela, bakartzen zaituen denbora sortzaila geldo hori baino ez bada. Baina, nahigabe txiki horiek izan arren, oraingo ez dut alde batera utzi behar poesia, batetik, adierazpide-askatasun osoa ematen didalako eta, bestetik, merkatuaren beharrei begira

egon behar ez dudanez, mugarik ezartzen ez didalako. Dena den, berak inoiz utziko banindu, beste bide batzuk aztertu beharko nituzke. Mundu honetan kokatzeko beste moduren bat aurkitu beharko nuke, eta, nola ez, bada, agian beste bat bilakatuko nintzateke. Zoriontsuago? Ez dakit... Egia esan, poetak ez gara beste mundu batekoak, pertsona arruntak gara, hemen bizi gara eta ez gabilta egun osoan poeta itxurak egiten.

**Poeta izatetik editorea izatera. Zer lehenago, zerk indar gehiago? Hain zeregin ezberdinak al dira? Non zaude eroago? Osagarriak al dira?**

Argitaratzaile lanak egiten dituen poeta bat naiz, eta bikoiztasun hori nola uztartu lan-jardunean erabaki behar da. Zenbat denbora eskainiko diot editore-lanari?, zenbat poesiari? Hori guztia eguneroko jardunean erabaki behar da. Eskerrak disziplina handia dudan. Eskuarki goizetan argitaletxean lan egiten dut eta arratsaldeetan irakurri edo idatzi egiten dut. Hala eta guztiz ere, zera gertatzen da: idazten nagoenean, batzuetan niretzat idazten dudala eta beste batzuetan argitaletxearentzat, eta gauza bera gertatzen zait irakurtzen dudanean. Dena den, sekula ez dakizu, argitaletxearentzat egiten duzuna, zuretzat ere baliagarria izango den, eta horixe bera gertatzen da irakurketekin. >>

## BASSARAI ARGITALETXEA [www.bassarai.com](http://www.bassarai.com)

Bassarai argitaletxea 1996. urtean sortu zuen Kepa Muruak. Ordutik idazle izen ugari eta genero anitz kaleratu ditu argitaletxe arabarrak. "Ez zen bat-bateko burutazioa izan, aspaldidanik nerabilen buruan gaztelaniaz idatziriko lanak kaleratzeko argitaletxe literario bat sortzeko asmoa - egiten du urteetan atzean poetak, argitaletxearen hastapenak gogoratuz-. Orduan hemen baziren burua ateratzen ari ziren zenbait idazle, egun berrogei edo berrogeita bost urte inguru dauzkaten idazleak. Gaztelaniaz idazten zuten, eta, euren lanak argitaratzeko zailtasunak zituzten, Madrilera edo Bartzelonara jo behar izaten zutelako". Hori ikusita sortu zuen Bassarai Muruak, "idazle horien bidea errazteko eta belaunaldi horren lanak zabaltzeko", alegia.

**Artea, saiakera, poesia eta narratiba generoak lantzen ditu Bassarai-k. Zenbat liburu argitartzen dituzue urtero?**

Urtean hamabost bat liburu argitaratzen ditugu, horietatik erdia gutxi gorabehera itzulpenak dira. Argitaratutakoak kontu handiz hautatzen ditugu, Bassarai-ren irakurleek literaturan zein artean zer edo zer berezia bilatu nahi dutela badakigulako.

Hori dela-eta Bassarai-n ezin dugu edozer kaleratu,

hain zuzen ere aukera arretatsua baita besteengandik bereizten gaituena.

**Argitaletxe bat sortzea eta mantentzea egitasmo arriskutsua omen da. Horrela al da? Bada Gasteiz argitaletxe bat sortzeko leku aproposa, edo lekuak ez dauka zerikusirik, baizik eta argitaletxearen irizpideak?**

Bai, egitasmo arriskutsua da, argitalpenen mundu honetan aldiro-aldiro krisialdiak izaten direlako herri honetan, non irakurtzeko ohitura ez baitago esaten den bezain hedatua. Dena den, arrisku hori norberak merkatuan eta kultura alorrean lortu eta zabaldu nahi duenaren araberrakoa da, eta horren aurrean bakoitzak hartzen duen kokalekua oso garrantzitsua da. Adibidez, Madrilén bazaude, argitaletxeen erabakien muinean zaude, Gasteizen, aldiz, ez; baina hiri handi horietan dagoen presio ikaragarria ez duzu hemen. Nolanahi ere, argitaletxe batek aurrera egiteko, garrantzitsuena argitaratze-ildo da, hau da, katalogoan jasotzen duen literatura-mota, argitaletxeen arteko lehiakortasuna bera da-eta guztiontzat.

**Zure liburu gehienak beste argitaletxeen bidez kaleratu dituzu, zein da arrazoia?**

Salbuespenak ere badira, lehena *Itxina* deritzon liburua. Orduan, idazlea naizen aldetik, egoki iruditu zitzaidan beste artista batzuekin elkarlanean aritzea. Gustukoa dut hori eta esperientzia hori bera oraintsu errepikatu dut AFCrekin, Mintxorekin, *Poemas del Caminante* deritzon liburuan. Bestalde, nire liburuak ez ditut Bassarai-n argitaratzen, gaizki ulertuak saihestu nahi ditudalako, editore eta idazle lanak behar bezala bereizi nahi ditudalako.

**Bassarai-n berriz, zure poemak bestelako kolaboratzaileen presentziak jantzi dira, Mintxo edo Jose Maria Alvarez-enak hain zuzen. Nola eta zergatik sortu dira elkarren arteko lan hauek?**

Artisten arteko proposamenak dira. *Itxina*, esaterako, Jose Maria Alvarez argazkilaria *Cavando la tierra con tus sueños* liburuko poemak erabili nahi zituelako sortu zen. Baina, liburu horren "paisaia" mendia izan beharrean itsasoa zeniez, nik neuk ez nuen garbi ikusten, horregatik bere argazkietan oinarriturik beste zerbait idaztea deliberatu nuen. *Poemas del Caminante* liburuaren kasuan, aldiz, Gasteizekin zerikusirik zeukaten poemak idazten hasi nintzen eta, egin ondoren, AFCri, Mintxori, eskatu nion poema horiek marrazteko. AFCrekin, Mintxorekin, lan egiteak bere abantailak dauzka: nire poesia ezagutzen duen artista da, oso profesionala da, ezarritako epeak betetzen ditu eta, honako honetan gainera, hiria



## mintxo

Alfredo Fermin Cemillan, Mintxo goitizenez ezaguna den marrazkilariak *Poemas del Caminante* liburuan parte hartu du Keparen hitzei irudia jarritz. Hala ere, hau ez da lehen aldia Mintxok Bassarai argitaletxearekin lan egiten duena. Berak dioenez, "*Sueño del dibujante* artista liburua egin nuen eta marrazki bilduma honek argitaletxearen Arte bilduma estreinatu zuen". Horretaz gain, orain artean Bassarai-ko zenbait argitalpenentzako irudiak ere egin izan ditu Gasteizen aspaldian bizi den madrildarrak.

*Poemas del Caminante* elkarren arteko egitasmoari dagokionez, "ez Kepa ez ni gara gasteiztarak jaiotzez baina hiria oso ondo ezagutzen dugu; horretaz aparte, elkarren artean oso ondo ezagutzeaz gain bikain ulertzen dugu elkar eremu profesionalean ere", dio. Ondorioz, Kepa Muruaren poemak eta Mintxoren irudiak eskutik doaz liburu honetan. "Keparen poesiak iradokitzen nau eta horregatik bertako irudiak ez dira hiriko postalez ulertzen dena, baizik eta haratago doan ikuspegia, biztanleen hiriarena, irudi soziologikoarena, hiriaren irudi poetikoarena...", nabarmentzen du. Mintxok aitortu duenez, *Poemas del Caminante* liburuan "Miren Unzurrunzagaren diseinu eta maketazio lan sakona eta txukuna aipatzekoa da".



ni baino askozaz hobeto ezagutzen du. Hurrengo liburuaz hitz egin dezakegu (zurea propioa denaz esan nahi dut)? Eta argitaletxeak aterako duen hurrengoaz?

*Cantos del dios oscuro* izango da kaleratuko dudana hurrengo liburu. Duela hamar urte, hemen, Gasteizen idatzi nuen liburu garrantzitsua da niretzat. Une zailetan idatzi nuen liburu hori. Ez dakit adierazten nola sortu zen. *Cantos del dios oscuro* liburu ez dut uste aurkeztuko dudarik, jendearen aurrean aurkeztuko banu, beraz,

mintzatuko banintz, nire bizitzako egoera larri batera berriro ere itzuliko nintza-tekeelako: orduan ez nuen lanik, nire semea jaiotzeaz zegoen, eta idazle moduan ere ez nuen aterabiderik ikusten...

Bassarai-n, berriz, *Aguas muertas* izeneko liburu argitaratuko dugu laster. Wen Yiduo poeta txinatarrena da. XX. mendeko lehenengo erdialdean bizi izan zen poeta zoragarri hori, eta Txinaren askatasunarekiko sekulako konpromisoa erakutsi zuelako, bi sikariok hil egin zuten. •

### kepa muruaren bibliografia

'abstemio de honores'  
'cavando la tierra con tus sueños'  
'siempre conté diez y nunca apareciste'  
'un lugar para nosotros'  
'cardiolemas'  
'las manos en alto'  
'poemas del caminante'  
'la poesía y tú'  
'la poesía si es que existe'  
'cuando cierras los ojos'  
'itxina'



**KIDE**

**APAINDURA**

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

## Dimitry Piterman & Alaves

Dimitry Piterman handiki ukraniarrak Alaves taldeko zaletuak bero jarri ditu. Futbol taldeko presidenteak botatako deklarazio iraingarriek mobilizazioak sorrarazi dituzte arabako futbol panoraman. Memento, bigarren denboraldiari aurre egiten dio taldeko lehendakaritzatik, klubeko akziodun nagusia da eta afizioak "Dimitry Kanpora" oihuaz bete du hiria. Alaves 16. postuan dago orain eta bigarren mailara joateko mamuak egoera nahastu du. Beraz, polemika mahaigainean dago. Aitzitik, taldeko euskarazko himnoa sortzeko lehiaketa ere abian jarri du presidenteak. Kalera atera gara honetaz guztiaz galdetzerara...

1. Alaves taldearen zalea al zara?
2. Zer pentsatzen duzu Dimitry Pitermanen inguruan?
3. Ba al duzu Alaves taldearen euskarazko himnoaren lehiaketaren berri?



**Amaia Lopez de Añua, ikaslea**

1. Bai. Bazkidea naiz eta aita, neba eta auzokideekin joaten naiz Mendizorrotzan partida jokatzeko duenean.
2. Pitermanek oso gaizki darama taldea. Mementoan ez dago entrenatzailerik, berak agintzen du beti eta hori ez da bere lana.
3. Bai, entzuna dut. Ondo dago, euskara bultzatzeko egingo dute eta politagoa izango dela uste dut.

**Jabier Carranza, administraria**

1. Bai, duela 2 urte zelaira joaten nintzen baino egun ez, denbora falta dela eta.
2. Oso txarra da tipoa, egiten ari dena dena ez dut batere gustuko. Ganorabako bat da, kalte handia egiten ari zaio taldeari, eta baita Alavesen irudiari ere.
3. Ez dut kontua ezagutzen, baina ideia ona iruditzen zait.



**Yerai Vilumbrales, ikaslea**

1. Alaves taldea gustuko dut, bazkideak gara aita eta biok eta Mendizorrotzan jokatzeko diren partiduetara joaten gara normalean.
2. Taldea oso txarto doa. Pitermanek oraintxe bertan alde egin beharko luke Alavesetik.
3. Beste taldeek badute euskarazko abestia eta guk ere behar dugu.

## AZTARNAK

[karmele jaio]



Gasteizko Alde zaharretik oinez noala, agure bat eta atso bat ikusi ditut denda baten erakusleihoaren aurrean geldituta. Oso zaharrak dira, laurogei urte ingurukoak, okertuta dute bizkarra biek, eta besotik helduta daude, tente jarraitu ahal izateko bata bestean euskarria bilatuko balu bezala. Interes handiarekin begiratzen dute barrura. Eta haien interesa ikusita, neuk ere jakin minez begiratzen diet.

Halako batean, gizonak eskua altxatu eta atzamarra zuzendu du erakusleihoaren barruko aldera eta orduan irribarre egin dute biek, urtetan ikusi gabeko norbait edo zerbait ikustean bezala. Eta bata besteari zerbait esan dio haren kontura.

Marokoar denda baten aurrean daude. Duela zenbait hilabete marokoarrek irekitako janari denda bat da, arabiar hizkiez idatzitako izena duena. Eta zer ikusi dute bada han hain ezaguna egin zaiena? Zerk geldiarazi ditu biak denda haren aurrean? Nire jakin mina haziz doa eta pausoa ere azkartu egin dut bertara ahalik eta lasterren heltzeko.

Parera ailegatzean, ikusi dut euren gerrira arteko altuera duten zaku handi-handi batzuei begira daudela. Zaku bat dilistaz beteta dago, bestean garbantzuak daude, bestean babarrunak... Pisan saltzen dituzte. Balantza bat dago hauen alboan. Lehen bezala. Agurearen eta atsoaren garaian egiten zen bezala. Eta ezinbestean egin dute hasperen hau ikustean, eta baita irribarre ere, babarrunak pisan saltzen ziren garai hartako konturen bat buruan nonbait. Edo usain bat, edo soinu bat.

Euren garaiaren aztarna batekin egin du topo bikoteak, non eta marokoar denda batean. Arabiar izen horrekin gaur arte hain arrotz egin zaien denda horietako batean. Zakuei azken begiratua bota eta aurrera egin dute kaletik, benetan arrotz egiten zaien taberna zaratsatu baten albotik. •

[edurne begiristain]

- Bertuterik handiena?

Saiatua izatea.

- Jeniorik ba al duzu?

Bai, batzuetan, baina normalean lasaia izaten naiz.

- GEU aldizkaria eta elkartearen berri?

Bai, aldizkaria etxean ez ezik, eskolan ere jasotzen dugu.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gauza askok. Esaterako, pertsona itxiek, uzkurrek, kontserbadoreek.

- Telebista saio bat?

Orain Wazemank, alabarekin ikusten dut.

- Film on bat?

Ikusi dudaz azkena, Brokeback Mountain.

- Liburu bat?

Adiskide maitea, El poder del ahora... Ipuinak ere oso gustuko ditut, Txabi Arnalenak bereziki.

- Musika gustukoena?

Musika euskalduna batik bat, Mikel Laboa.

- Jaki goxoren bat?

Babarrunak sakramentuekin.

- Batere gustuko ez duzuna?

Arrain gordina eta halakoak.

- Azken oporrak non eta zertarako?

Andaluzian. Granadan preso bati bisita egitera joan ginen, eta bide batez txangoa egin genuen.

- Denbora libre gehiago izanez gero, zer egingo zenuke?

Edozer gauza: mendira joan, bidaiatu, etxean geratu...

- Gasteizek duen onena?

Alde Zaharra.

- Eta txarrena?

Zerrenda luzea dut: Udala, pisuen prezioak, hotza, trafikoa...

- Hiriko lekuri politena?

Florida parkea.

- Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Nik uste baietz. Trabak egon badaude, baina saiatu behar dugu euskaldunon arteko harremanak zabaltzen.

- Mementoko kezkarik handiena?

Eguno egoera politikoa, oso garai zaila, bizi dugu eta.

- Amets bat?

Herriaren aldarrikapena, hots, independentzia lortzea.●

[arg.: edorta sanz]

MARISA DIAZ DE ARKAIA

## "Euskaldunon arteko harremanak zabaltu behar ditugu"

Gasteizko Zaramaga auzoko Udal Haur Eskolako irakasle eta zuzendaria da Marisa Diaz de Arkaia. Euskara Gasteizen ikasi zuen: hasieran Euskaltzaindiako egoitzetan jaso zituen euskara klaseak; AEK, eta HABEn ostean; eta Lazkaon barnetegi batean ere izan zen, EGA titulua ateratzeko. Bertan ezagutu zuen egun bere bikotea dena eta harekin alaba bat du, Irati.

✓ Bere burua pertsona irekitzat du, hitz egitea asko gustatzen zaiola dio. Hortaz, ez dator bat bere lagunek berari buruz diotenaz, hots, serioa dela.

✓ Mendia, gimnasia egitea, eta irakurtzea oso gustuko ditu. Gainera, beti dago prest planak egiteko.

✓ Euskalduna eta euskaltzalea da. Euskarak Gasteizen gero eta leku gehiago duela iritziz dio. Azken aurrematrikulazioan Zaramagako Haur eskolan D matrikulazioak gora egin izana horren isla dela dio.

## ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

**GARMENDIA**

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

**XABIER  
AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48  
ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**



# El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA  
ZERKABARREN KALEA, 18  
01008 GASTEIZ  
945 263 874

# IRYSTA

## TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

**ESPEZIALITATEA:**

**Patata tortila • Otartekoak**

## LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

## Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

## ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta

Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

[geugasteiz.com](http://geugasteiz.com)

**bonardi**  
armazoi berriak  
**38€**

**Orain Bonardi izan zaitezke zu ere...**

ZERBITZU  
OPTIKOETAN  
**1a**

**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**



# INFERNUKO ATEAK ZABAL-ZABALIK

Orain dela 5 urte Hell Dorado kultur elkarteak sortu zenean, ordura arte Gasteizen Rock&Roll musikaren kontzertuen inguruan zegoen gabezia betetzea zuen helburu nagusia. Denbora igaro eta antza denez, xedea bete da. Baina ez hori bakarrik, bestelako ekintza berriak ere antolatzen ditu, hala nola, igaro den martxoaren 3an ikusgai izan zen 'Bibian Norai sex & power music' espektakulu erotikoa.

[maite lekue & saioa f. de arangiz]

Hell Dorado kultur elkarteak 2001eko udaberrian zalbadu zituen atea, musika komertzial eta modazko lokalen aurreran, kalitatezko musika ezberdinaz gozatzeko tokien eskasia sentitzen baitzuten sortzaileek. Horrela, musika munduan aski ezagunak diren lagun talde batek Oreitiasolo industrialdean kokatuta dagoen eraikin industrialak alokatu zuen, musika eta kultur ekintzak aurrera eramateko xedez.

Rock&Roll-eko kontzertuak antolatzea da zeregin nagusia, hala ere, askotan bestelako musika moten kontzertuak, antzerkiak edo zinema proiektzioak ikusteko parada egoten da bertan. Fleshtones, Kuraia, Supagroup edo Cynics taldeak dira, besteak beste, azken boladan Hell Dorado elkartearen euren musika eskaini dutenak.

Gauzak horrela, bi dira elkartearen nahiak; batetik, estatuko taldeak zein internazionalak Euskal Herrira bisitan datozenean, Gasteiz baztertua ez uztea, eta bestetik, DJ espezializatuen musika ekartzea.

Horretarako, kultur elkarteak lan gogorra egiten du, are gehiago, laguntza instituzionalik jasotzen ez baitu, bakarrik bazkideen ekarpena. Hala ere, ez da oztopoa, argi asko azaltzen duten bezala, euren Hell Maniaca programaketa askatasunean eta era zentzudunean egiteko aukera osoa dutelako. Horren adierazle dugu, esaterako, igaro den martxoaren 3an bertan ikusi zen 'Bibian Norai sex & power music' espektakulu erotiko-pornoa.



[arg.: edorta sanz]





# HELLDORADO, PORNO IZARRAK ETA ROCK&ROLLA

## JUAN URIARTE, HELL DORADO KULTUR ELKARTEKO ARDURADUNA

### Zein da Hell Dorado kultur elkarteko filosofia?

Hasiera batetik elkarteko filosofia bakarra gustatzen zaizkigun musika taldeen kontzertuak antolatzea izan da, baita erakargarria suertatzen zaizkigun bestelako ekintzak ekartzea ere. Den-dena helburu zehatz batekin, leku aproposa edukitzea parranda onak egin ahal izateko, alegia. Hau da, areto komertzialetan dituzten alde

txarrak saihestu nahi izan genituen eta aldi berean, gutxienezko kalitatea mantendu nahi genuen, besteak beste, soinuari dagokionez. Askotan jarritako gogoa dirua baino garrantzitsuagoa bilakatzen da eta!

Horrez gain, elkarte sortu genuenean oso gutxi ziren Gasteiza hurbiltzen ziren Rock&Roll taldeak eta musika mota hau maite dugunok bestelako hirietara mugitu behar ginen.

### Jada 5 urte pasa dira. Zein da orain arte egindako ibilbidearen balorazioa?

Bufff... egia esan, ez dakit ziur zergatik mantentzen garen. Hainbat taldek eman dizkiguten memento onek

makina bat buruhaustek baino gehiago balio dutela suposatzen dut! Izan ere, ondorio tamalgarria atera dugula esan beharra dago. Gure ustez, Gasteizko gazteria (eta baliteke beste hirietakoak ere) erabat lokartuta, geldoa eta gogorik gabe dago. Arrasate, Bergara, Bilbo, Durango eta Donostiako jendea hurbiltzen da Hell Doradora. Etxe ondoan dutenei, ordea, asko kostatzen zaie etortzea.

### Zein da egun Hell Dorado-k Gasteizko panorama musikalean betetzen duen lekua?

Besteek esan beharko lukete... halarik ere, orain Azkena aretoa, esaterako, lokartuta samar dabilela dirudi eta egun buruan gaudela uste dut. Guk geuk esatea txarto dago, baina Euskal Herria zein estatu mailan talde askorentzat erreferentea gara, betiere, rock underground musikari dagokionez noski!

### Normalean Gasteizen ez da Bibian Norai-ren espektakulu erotikoa bezalako antzekorik ikusten. Nola sortu zen Hell Doradora eramateko ideia?

Bera izan zen proposamena egin ziguna. Egia esan, sexuaren maitale amorratuak izan arren, ez zitzaigun inoiz bururatu halako ekintza antolatzea. Bibianek hainbat kontzertu ikusi zituen hemen eta Hell Dorado asko gustatu zitzaionez proposamena luzatu zigun. Hasiera batean, ez geneukan oso argi soilik espektakulu porno bat egitea, hala ere, musika onarekin nahastea ondo iruditzen zitzaigun eta zalantzarik gabe probatu beharra geneukan.



Juan Uriarte, Los Padriños-ekin, 2004ko udan

## 'Bibian Norai sex & power music' espektakulua, gizonentzat espresuki sortutako showa

Gaueko 12ak Helldorado aretoan. Ezohiko bero atmosfera gerturatutakoen gorputzen artetik. Begiak zabal-zabalik eta izerdi tantak lurra kolpatuz urduritasunaren seinale. Hell Dorado-k bizi izan duen gaurik lizunena hasteko prest da.

Las Vegasetik etorri berri Bibian Norai zuzendari eta aktore pornoa eszenatokia betetzeko prest, baita bertara hurbildutakoen sexu grina asetzeko ere. Eta baita horrela suertatu ere.

Suzko txupitoen joko erotikoak hasiera eman zion Helldorado-ko termometroa apurtzera iritsi zen espektakulari. Sua eta malabareak, txupitoak eta gorputz dastaketak, dantza sentsualak. Hugo Duke aktore pornoak prestatutako edabe kitzikagarria 5 emakumeren gorputzen artetik dastatzeko aukera izan zuten bertan bildutakoek, eta oraingo honetan ez zen bolondresik falta, ezta gutxiago ere. Publiko artetik banan-banan taulapera salto egin zuten bertako emakumeek eskainiko zutena edateko prest. Gizonentzat espresuki sortutako showa, pornoaren ezaugarri den erabateko izaera maskulinoa ikusgai zuzen-zuzenean.

Kulero eta titizorro gorri erakargarritz aurkeztu ziren showa emango zuten sei emakumeak, Alba Sanz, Cira Fer, Ingrid Sol, Valeria de Fogo, Sandi eta guztietan

erregina zen Bibian Norai. Gutxi iraun zuen hala ere barruko erroa iradokitzaileak eta bide eman zion handik gutxira ageriko ziren gorpu biluzien erakusketari.

Dantza erotikoak gorputz gorrietatik, larru bizien igurtziak emakumeen artetik. Sexu jolasak publikoaren gozamenerako. Laztanak eta miazkadak, emakumeen arteko sexu bizia, jendarteko sexu ekitaldi gordina ikusgai. Xehetasunen maitaleentzat aldiz, paretan kokatutako pantaila erraldoia, planorik motzenen leiho irekia. Eta sexuzaleak gustura uzteko eszenatokira igo ziren. Carlos Dario eta Hugo Duke aktore pornoak sexu izarrekin larrua jotzeko prest. Txortan aurretik eta txortan atzetik, batekin eta beste batekin. Mozorroa jantzirik eta gorri-gorri. Hainbesteko beroa Helldorado-ko argindarrak ezin izan zuen jasan, une luze batez argi eta musika gabe geratu baitzen.

✓ **BIBIAN NORA**Ik estatu mailako aktore pornoen lehen saria eta zine pornoaren zuzendari onenaren saria ere lortu ditu.

zuzendaria: bibian norai

aktoreak: alba sanz, cira fer, ingrid sol, valeria de fogo, sandi poter, carlos dario eta hugo duke.

musika: bartzelonako dj dengue (show-aren barnean); igu allnighter; 'el pintxalabios', hala bedi irratiko jose luis eta fernando.

## EMAKUMEENTZAKO PORNOGRAFIARIK EZ?

[m.l & s.f.a & e.b]

Esparru askotan bezala, egunotan oraindik ez da emakume eta gizonen arteko berdintasuna eman sexuaren kontsumoari dagokionez. Aldizkariak, espektakuluak, pelikulak... gehienak (guztiak ez esatearren...) gizonei zuzenduak. Horrez gain, emakumearen sexu grinaz hitz egitean sentimenduei egiten zaie erreferentzia betiere. Alabaina, askotan larrua jotzearen plazerra soilik bilatzen da eta sexuaren merkatuak emakumeen desioei arreta jarri beharko lieke... Halere ez genuke maila bajuko eskaintzarik nahi, jakina, gaur egun gizonezkoei zuzendutako pornografiaren hein handi batekin gertatzen den bezala, benetan kalitatea duen eskaintza erotiko-pornografiko parekatu eta berdinduaz ari gatzazkizue... Beraz, horra hor hausnarketarako galderak:

NOIZKO emakumeei ERE zuzendutako kalitatezko pornografia, sexu ikuskizunak edota ikuskizun erotiko-pornografikoak...? (...eta zaku honetan ez sartu, esaterako, emakumeei baino ez zuzendutako ezkondu aurreko agur-jaiak delakoak, horiek beste kontu bat dira-eta; eta gu eskaintza zabal batez ari gara, emakumezko zein gizonezkoei zuzendurikoa...). Beraz, NOIZKO gizonezko nahiz emakumezkoei zuzendutako benetan eskaintza pornoerotiko-sentsuala, kalitatezkoa, berritzailea, parekatua eta berdintasunezkoa? NOIZKO pornografiaren normalizazioa? Gu ere sexuzaleak gara eta.

> gai honen inguruan zure iritzia eman nahi baduzu, egizu gure webguneko foroan: [www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com)



**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ  
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390  
e-mail: [errotadental@euskalnet.net](mailto:errotadental@euskalnet.net)

*Bacalao Giraldo*



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza  
GASTEIZ

**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta  
erosotasuna zure esku"

# EUSKAL HERRIEN ARTEKO EUSKAL JOKO III. TOPAKETAK

[xiba - iparraldea & araba]

## ZER DA XIBA?



"Xiba ikastolen elkarteko egitasmoa dugu (Ikaspilota-k sustatua), euskal jolas, joko eta kirolak berreskuratu, gaurkotu eta hauen transmisioa segurtatzeko xedearekin ari gara. Hau guzia euskara sustatuz eta euskaraz biziz.

Ikastoletan lan egiten dugu, baina ez bakarrik. Gure egitasmoa ikastetxeetako eremutik atera eta jendartean zabaltzea nahi dugu. Horretarako gure joko kirolak berreskuratzeaz gain, aisialdi eredu berri bat proposatu nahi dugu. Horrez gain, beste helburu bat ere badugu: Xiba proiektuaren izena zabaltzea eta hunen giblean den proiektu berritzailea landu eta sakona ezagutzera ematea.

Hortan kokatzen dira aurten hirugarren aldiz antolatuko ditugun Euskal Herrien arteko euskal joko III. Topaketak.

Orai bi urte proposatu ziren euskal kirol, joko eta jolasak berreskuratu eta beste eredu batekin berjenderatzeko, ekimena zazpi probintzietan antolatzen dugu, jaialdika, konduan izanik Xiberoa, Baxenafarroa eta Lapurdirentzat orai arte topaketa bakarra egin dugula. Aurten beste bat egingen dugu Baigorri Baxenafar eta Xiberotarrentzat".

## PARTAIDETZA PROPOSAMENA

Egitasmoari laguntzeko iragarki eskaintza zabala dago, 300 eurotik 10.000 euro bitartera doana. Honen inguruko informazioa eskuratzeko jar zaitezte harremanetan antolatzaileekin.

## ONARRIZKO HELBURUAK

✓ "Ikastolen Konfederazioen baitan kokatzen den Xiba proiektuan lanean ari gira euskal joko eta kirolak sustatzeko eta aldi berean euskara".

✓ "Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik herrietako taldeak bilduz eta gure kulturaren barne diren euskal jokoak erabiliz, bi helburu lortu nahi ditugu :

-Euskal joko eta jolasak berreskuratu, gaurkotu eta zabaltzea.

-Herrien arteko harremanak sustatu, euskal giroan.

Bi hitzez erraiteko, garai batez herrien arteko joko zirenak berriz plazaratu gaurkotuz".

✓ "Topaketa hauek aintzina ateratzeko, azken urteetako esperientzia eta gure engaia mendua hor ditugu, baina dakizuen bezala diruak ere proiektua aintz baldintzatzen du. Hartara proiektu huntan gure partaide izateko proposamena egiten dizuegu. Denen artean gure kultura biziarazteko, elgarrekin egin behar dugu bide".



## HELBURU ZEHAZAK

✓ Jolas tradizionalak berreskuratzea, egokitu eta sustatu.

✓ Jolas tradizionalak aisialdirako bultzatzea; aisialdi aukera erabilgarria izatea; gizarteari harremanetarako aukera egokia eskaini; emozio eta kulturari lotutako ekintza osasungarria gizartean txertatu; tradizioaren transmisioa era natural batean bideratu, euskaraz eta praktikatzuz; gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatu.

✓ 16 urtetik gorako gazte eta helduei zuzenduriko ekimena da.

## AITZINEKO EDIZIOAK

|                    | 2004ko edizioa |            | 2005eko edizioa |            |
|--------------------|----------------|------------|-----------------|------------|
| Bizkaia            | 3              | 30         | 6               | 75         |
| Nafarroa           | 6              | 75         | 8               | 100        |
| Araba              | 12             | 150        | 16              | 200        |
| Gipuzkoa           | 16             | 200        | 14              | 170        |
| Ipar Euskal Herria | 10             | 120        | 12              | 150        |
| Azken jaialdia     | 21             | 260        | 24              | 300        |
| <b>OROTARA</b>     | <b>68</b>      | <b>835</b> | <b>80</b>       | <b>995</b> |



2005eko edizioa gasteizko foru plazan

## AURTENGO EGITARAUA

| Lurraldea            | Noiz           | Nun           | Besta                           |
|----------------------|----------------|---------------|---------------------------------|
| Baxenafarroa Xiberoa | Apirilaren 22a | Baigorri      | Nafarroaren Egunekeo egitarauan |
| Gipuzkoa             | Apirilaren 29a |               | Kilometroaken egitarauan        |
| Lapurdi              | Maiatzaren 13a | Saran         | Herri Urrats bezperan           |
| Araba                | Maiatzaren 6a  | Gasteizen     |                                 |
| Nafarroa             | Maiatzaren 20a | Elizondon     |                                 |
| Bizkaia              | Maiatzaren 28a | Elorri        |                                 |
| Azken jaialdia       | Ekainaren 18a  | Erabakitzekoa |                                 |

## 2006KO EDIZIOAN

- Parte-hartzaileei zuzendutako formazio jardunaldiak (modalitateak ezagutaraztea eta aholkularitza tekniko) antolatuko dira, topaketa baino astebete lehenago.

## GASTEIZ AURREKO EDIZIOETAN

| urtea | tokia               | talde kopurua | parte-hartzaileak | ikusleak |
|-------|---------------------|---------------|-------------------|----------|
| 2004  | Landatxo kiroldegia | 13            | 156               | 500      |
| 2005  | Foru plaza          | 20            | 280               | 1500     |

## HITZORDUA GASTEIZEN

Maiatzak 6  
Aihotz plaza  
17:00etatik aurrera

seaska/ xiba. forum zentroa. 64100 baiona

kontaktuak: >iparralde: ellande alfaro, 06 07 25 01 02 / - ikaspilota@errex.net >gasteiz: roberto, 658750998

Mikel Saenz de Santa Maria eta Jon Castillo gasteiztarrek Negu Gorriak eta Berri Txarrak taldeen abestietan oinarrituriko film laburrak estreinatuko dituzte apirilaren 25ean, Parral tabernan, GEU elkartearen ekimenez.

[josune velez de mendizabal]

Gustuko duten talde hauen musika abiapuntu hartuta egun Madrilen ikasketak burutzen ari diren gasteiztar bi hauek euren jatorrizko hirira etorriko dira 'Itxoiten' eta 'Eskuak Ukabilak' film laburrak aurkeztera. Proiekzioak ikusi ostean ikus-entzunezkoen munduan duten euren orain arteko esperientziaz solasalditoxa eskainiko dute eta bertaratutakoen galderak atseginez erantzungo dituzte.

zer: 'eskuak ukabilak' eta 'itxoiten' film laburrak

nork: mikel saenz de santa maria eta jon castillo gasteiztarrek

non: parral tabernan

noiz: apirilaren 25ean, asteartea, arratsaldeko 20.30ean


# 'ITXOITEN' & film laburren GEU elkartearen ekimenez:

## MIKEL SAENZ DE SANTA MARIA, 'ITXOITEN'

Mikelek bost urte daramatza Madrilen ikus-entzunezko karrera burutzen. Aurtengo udan bi hilabetez New Yorken egon zen zinemarekin erlasionaturiko ikastaro batean eta ondorioz sortu zen 'Itxoiten' film laburra. "Metroan nengoela albiste bat irakurri eta bertan bururatu zitzaidan ideia -dio gazteak-. Albiste horrek azaltzen zuen eskolako irteera batean ume bi hil zirela; horrez gain albistean gurasoen argazki bat agertzen zen; horren ondorioz pentsatzen hasi nintzen gurasoengan haien seme-alabak bueltatzen ez zirenean. Ideia horrek norbaiti itxoiten diozunean eta agertzen ez denean duzun sententzia burura ekarri zidan".

'Borreroak baditu milaka aurpegi' Negu Gorriak taldeak 1993an kaleratutako diskoko kanta aukeratu zuen Mikelek bere laburrerako. "Betidanik gustatu zait kanta hau eta nire istoriorako perfektua zela ikusi nuen", aitortu du Mikelek.

Sinopsia: Emakume bat bere mutil-lagunaren urtebetetze festa sorpresa prestatzen ari da. Gonbidatu guztiak agertzen dira baina festako protagonista ordea ez, eta neska-lagunak zain ematen du denbora.



**EYSKAL LABELA LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

*Confecciones*  
**Pinedo**  
**JANTZIAK**

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90

**DaLvez**  
argitarazleak

diaz de olano kalea, 22 -behea  
telefonoa: 652 77 65 09 faxa: 945 24 52 69  
www.dalvez.com info@dalvez.com



diseinu grafikoa  
maketazioa

liburuak  
aldizkariak  
afixak  
katalogoak

# 'ESKUAK UKABILAK'

## aurkezpena Gasteizen

apirileko KULTUR ERROTA

### JON CASTILLO, 'ESKUAK UKABILAK'

Berri Txarrak-en 'Eskuak, ukabilak' 2001eko diskoan agerturiko bi kanta aukeratu ditu Jonak Mikelekin batera egin duen izen bereko lanerako. "Oso modu estuan lotuta dauden kanta bi dira. Film labur metaforikoa egin nahi izan dut, bakoitzak istorioa nahi bezala uler dezan...", nabarmendu du Castillo.

Telekomunikazioko bosgarren maila Madrilen ikasten diharduen gaztea, ikus-entzunezkoetan aditua ez dela dioen arren, zenbait film laburretan lanean aritu da aurretik. "Hala ere, hau da nire lehen film serioa", onartu du. Proiektzioa abestiaren hitzetan oinarritzen da batik bat.

Sinopsia: Nolabait amodio/gorrito istorioak kontatzen ditut oso era motzean eta metaforikoan, guztiak eskuen bidez aurkeztuta. Eskuekin pentsatzen dugun baino gauza gehiago egiten baititugu.



MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik  
behar zaitu**



**EAJ  
PNV**

cd-a

eorann

eorann taldea / [www.eorann.com](http://www.eorann.com)

bederatzi abestiko diskoa argitaratu berri du bilboko talde euskaldun honek. beren eragin aitortuak popa, post-rocka eta noisea dira, mogwai, sonic youth, death in vegas, yo la tengo, my bloody valentine... 2001ean sortu zen bilbon. 2003an lehen maketa grabatu zuten. aurten euren 2. lana grabatu berri dute eta jada zuzeneko aurkezpenekin hasi dira. taldearen partaideak: gontzal caraballo (baxua), sergio hoyuelos (gitarra), adrian bilbao (bateria) eta birkite alonso (ahotsa eta gitarra). zuzeneko emanaldietan distortsioa eta efektuekin jolastea atsegin dute, giro berezi eta psikodeliaz kutsatua ematen saiatzen dira. finalisten artean geratu ziren euskadi gaztea maketa lehiaketaren 2004 eta 2005eko edizioetan, besteak beste.




liburua

ecce homo

laura mintegi | txalaparta-2006ko martxoa | [www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com) | orrialde kopurua: 230

joxek proposamena luzatu dio elkarrekin bizitzeko, eta galderak irauli egin dio bizimodua begori. galdera berandu heldu da, jakina, eta deslari utzi du gainera. lehenago galdetu behar izan zion, hainbat urte lehenago, eta ez zuen egin. tartean bizipen gehiegi jazo dira, bizipenak eta politika, politika beti, nonahi, bazter guztietan. politikan jardun zuten gauzak alda zitzaizketelakoan, eta eurak aldatu zituen jardunak. politikak giza harreman berriak sortu ditu, sortu eta hautsi, berbiztu eta piztatu, irazeki eta itzali. gabetsi egiten dute gauzak sinpleagoak ziren garaia. zeren ezer ez baitago politikatik urrun, eta denak du zerikusia denarekin, gizon edo emakume izatearekin.



zinea

Tsotsi

drama | erresuma batua - hegoafrika | iraupena: 94 min.  
urtea: 2005 | zuzendaria: gavin hood

johannesburgo inguruan dagoen auzo batean miseria da nagusi. hor bizi da tsotsi, 19 urteko mutila.

bere benetak bizitzatik dena ezabatu du, baita bere izena ere.

tsotsi, 'gangster' edo harroputza esan nahi du kale-hizkuntzan. izenik gabe, familiarik gabe, iraganik gabe, bakarrik amorrutaz betetako orainaldia bizi du.

bera da kaleko talde baten liderra; bertan daude: boston, arrakastarik izan ez duen irakaslea; butcher, hiltzaile bat; eta aap, lelo bat.

hauek ere ez dakite ezer tsotsiren iraganari buruz eta horrek iskanbilak sortuko ditu taldean.



BESTIARIO

[txabi arnal gil]



Galiziatik argitaletxe berri bat jaio delako berria heldu zaigu. *Faktoria de Libros* eman diote izena, eta jaio-berriaren etorrera ospatzeko, besteak beste, *Bestiario* izenburuko liburua eskaintzen digute.

*Bestiario*, hitz gutxiko liburua, hala ere, oso adierazgarria, irudiz josia, ederra.

*Bestiario* ausardia da, irudimen handikoa, Jean Fugeren hitzaurrea zuzena, ezinbestekoa eta trebea, Estephan Poulinen marrazkiak bikainak, surrealista eta hausnarketarako sortuak.

*Bestiario*ren irudiek argi, arin eta jariotsu hitz egiten digute, iradokitzaileak agertuko zaizkigu, biluzik eta gordin, esanahi bikoitzarekin jolasean. *Bestiario*ren irudiak hitz magikoak bilakatzen dira batzuetan, koadro bihurtzen dira beste batzuetan, eta horrela gertatzen denean ez zaigu zaila izango Hopperen edota Van Goghen aztarnak topatzea. *Bestiario* liburuaren irudietan animaliak dira protagonista, izaera psikologikoa agerian uzten duten animaliak, animalia gizatartuak, txakur maiordomoa edota pinguino pintorea, esate baterako.

Stepahn Poulinek muturreraino eramandako jarrerak marrazten ditu: zezena eta toreatzailea elkarrekin dantzatzeko, ahuntza ilargian, sagu erraldoia noria batean eta oilar margolaria.

Stephan Poulin. Kolorea eta argia. Urdina, gorria eta horia. Eguneroko mementoak fikzio pitin batez tindatuak.

Stephan Poulin. Sari ugari. Hau bezalako artelanak sortuz gero ez da batere harritzekoa.

*Bestiario*. Stephan Poulin.  
Faktoria de Libros, 2005

# Elkarte gastronomiko euskaltzalea abian

[arg.: edorta sanz]

Gasteizko hainbat euskaltzalek elkarte gastronomiko-kultural bat egiteko proiektua dute Bagare Euskal Tokian. Oraingoz 25 lagun inguru elkartu dira, baina euren xedea da behintzat beste hamar bazkide gehiago erdiestea. Edurne Goitia eta Alfonso Sanzek egitasmoaren xehetasunak azaldu dizkigute.

[edurne begiristain]

**Nola eta zergatik otu zaizue Bagare gastronomia elkarte bilakatzeko ideia?**

**Alfonso:** Bagare sortu zenean, asmoa zen kutsu gastronomikoa zuen euskaldunentzako bilgune bilakatzea. Baina hainbat arazo tartean egon zirenez, helburu hori alboratu egin zen premia ekonomikoari aurre egin behar genielako. Orain, zenbait euskaltzalek pentsatu dugu berriro elkarte gastronomikoa egitearen ideia berreskuratzea, eta kontuan hartuta Bagareko xedeetan hori jasota dagoela, eta Bagareko egoerak aldaketa batera behartzen duela, pentsatu dugu irtenbiderik onena hori dela. Egitasmoa aurrera ateratzen saiatzen ari gara, eta bazkide bila gaude.

**Zer behar da une honetan egitasmo hori martxan jartzeko?**

**Alfonso:** Hasierako planteamendua zen Bagare erostea eta obrak egitea. Hasieran 50 lagun bilatzen genituen eta bakoitzak 6000 euro jartzea proposatu genuen. Baina aldaketa bat egon da. Aukera juridikoak aztertu ditugu eta badago beste formula bat ahalbidetzen diguna Bagareko jabetza guk hartzea baina salerosketa prozesurik gabe, eta horrek operazioa asko merketzen du. Bide horretan gabiltza. Hartara, orain baldintzak aldatu ditugu,

ez dugu 50 lagun behar, 35 lagun izatea aurreikusten dugu, eta gehien jota, 45. Hogeita hamabostera iristean itxaron zerrenda bat egingo genuke, bazkideok erabakitzeke zenbat izan nahi dugun. Jarri beharreko dirua ere gutxitzen da. Bagarek gaur egun daukan mailegua gure mailegu kolektibo egingo dugu. Horrek dakar hasieran 2.600 euro jarri beharko duela bazkide bakoitzak.

**Edurne:** Bai. Sarrera moduan 2.600 euro jarri beharko luke bazkide bakoitzak, gero hileroko 38 euroko kuota bat ordaindu beharko luke, maileguari eta eguneroko gastuei aurre egiteko. Eta hemendik bi urtera, 1.500 euroko ekarpena jarri beharko luke. Sarrera hori bazkide kopuruaren arabera aldatuko genuke.

**Hortaz, zer da zehazki gasteiztarrei egiten diezuen eskaera edo proposamena?**

**E:** Jendea behar dugu, eta beraz, mezua zuzentzen diogu jende orori gurekin bat egin dezan. Egitasmo polita da, euskaltzalea, eta gisa honetako proiektuak oso politikak dira euskararen alde egiteko. Bileratara etor daitezten eta behintzat informazioa jaso dezaten nahiko genuke. Edozeini irekita dago egitasmoa.

**Elkarte gastronomiko euskaltzalea dela diozue. Euskara bultzatzea helburu gisa hartuko duzue?**



**A:** Helburu gisa euskaltzalea izatea jarri dugu, ez bereziki euskalduna, baina bai euskaltzalea. Ezberdintasuna bada. Izan ere, edonork lagun erdaldun batekin joan nahiko balu, lasai asko egin lezake. Bazkidea bera ere erdalduna izan daiteke. Guk ez dugu euskara bera baldintza moduan jartzen. Baina bai euskaltzalea izatea. Bildu garenok euskararen mundutik gatoz, eta euskararen aldeko ekimenak ere bultzatu nahi ditugu.

**E:** Bestelako ekimenak ere egin nahi ditugu. Lokalak badauka taberna lizentzia, beraz, bestelako jaiak ere antolatu daitezke.

harremanetarako telefonoak  
edurne goitia: 655748849  
alfonso sanz: 678338695



bitxiak / zilarra / osagarriak

*Prezio ezin hobeak!  
Originaltasuna!*

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



## OKUPAZIOA GASTEIZEN

# Etxebizitzaren erabilera soziala aldarri

Okupazioa albiste da Gasteizen. Bi etxe okupatu zituzten zenbait gaztek otsailean Alde Zaharreko aitzogile kalean. Etxebizitzaren erabilera soziala aldarrikatzearekin batera, Gasteizko Udaleko biziberritze planaren aurkako "erresistentzia egitasmo" bilakatu nahi izan dituzte okupaziook.



[edurne begiristain]

Izan ere, bi urte joan dira Gasteizko Udalak, Fundazioaren izenean, katedralaren inguruan dauden hogeitau bat eraikin desjabetu zituenetik. Erabilera turistiko edo komertzialerako gorde behar zirela esan, eta Santa Maria Fundazioaren esku utzi zituen aitzogile kaleko eraikinak. Ordutik, etxebizitza ugari hutsik egon dira. Ateak eta leihoak hormatu egin zituzten, etxebizitza beharra zuen pertsona ugari etxe huts horietara sartzen baitzen.

Gasteizko Gaztetxeak, Alde Zaharreko Gasteiz Txiki Auzo Elkartek, Gasteiz Izan-ek, Duinak kolektiboak, Elkartzen-ek, CNTk eta Segi-k gazteen okupazioekin bat egin dute. Santa Maria Fundazioa izan da orain arte bi etxebizitzaren jabea. Orain, ordea, jaberik ez. Orain, etxebizitza eskubidearen aldarria da etxeotako maizter bakarra.

## 103

"Okupazio berri hau gazteen etxebizitza eskubidearen alde eta Udalaren biziberritze planaren aurkako erresistentzia proiektu bihurtu nahi dugu". Horietxek otsailean aitzogile kaleko 103. zenbakiko etxea okupatu zuen gazte taldeko kideetako batek esandakoak. Izan ere, Alde Zaharra biziberritzeko Gasteizko Udalak prestaturiko egitasmoaren arabera, Santa Maria Katedrala inguratzen duten etxadian frankizia ospetsuak eta turistentzako zerbitzuak jarriko dira. Alabaina, asmo hori ez da auzokide askoren gustukoa.

Iritzi horretakoa da,

esaterako, 103. zenbakiko eraikina okupatu duen gazte taldea. Auzokideen beharrak eta iritziak baztertu dituztela salatu dute, eta turistentzat "erakusleho polita bainoago, bizitzeko egokia den auzoa" aldarrikatu dute.

## 99

103. zenbakiko okupazioaren ondotik, kale bereko 99. zenbakiko lokal baten okupazioa etorri zen otsailaren amaiera aldean. Aitzogile kaleko 99. zenbakiko etxabearen dagoen lokalaren okupazioa Hemen eta Munduan elkarteak egin zuen, Okupazioaren aldeko Asanbladaren eta Gasteiz Txiki auzo elkartearen babesarekin.

Biltzeko toki bat lortu eta Alde Zaharreko egoera kezkarriari aurre egiteko xedez okupatu zuten elkarteko kideek lokala. Globalizazioaren aurka lan egiten duen taldea da Hemen eta Munduan, eta Alde Zaharreko dituzten kezkek bultzatuta erabaki zuten okupazioa tresna gisa erabiltzea. Euren asmoa da lokala txukundu eta euren eguneroko jarduerak egiteko egokitzea, lokala auzoari zabaltzeko. Izan ere, auzoan biltzeko toki premia duten talde asko dago, eta haiek biltzeko toki aproposa izan daitekeela iritzi diote. "Hemen gauden bitartean zilegitasuna lortu nahi dugu, eta horretarako lokalari benetako erabilera soziala, politikoa eta kulturala emango diogu", adierazi dute.



## e.t.a.-k su-eten iraunkorra iragarri zuen martxoaren 22an

eguerdiko 12:15ean zabaldu zen berria, bideo grabazioaren bitartez, eta martxoaren 24ko 00:00tik aurrera abiatu zen ekintza armatuen etenaldi iraunkorra. erabakiaren



xedea, "euskal herrian burutu beharreko prozesu demokratikoa bultzatzea da, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioaren bidez, gure herriak beharrezkoa duen aldaketa politikoa gauzatzeko", e.t.a.-ren borondatea eta nahia zabalduko prozesua bururaino eramatea delarik.

erakunde, alderdi, gainontzeko eragileek eta herritarrek oro har oso baikor hartu dute e.t.a.-ren erabakia.

## jabier muguruza, lertxundi eta oskorri, espainiako musikaren sarietan hautagai

musikaren arteen eta zientzien espainiako akademiak maiatzan madrilen emango dituen sarietan euskarazko abesti onenaren



alorreko hiru hautagaiak honakoak dira: jabier muguruzaren 'abendua 29' diskoko *bizitza bizitza da* kantua; oskorriren 'doktor do re mi eta benedizebra' diskoko *do re mi* abestia; eta benito lertxundiren '40 urtez ikasten egonak' laneko *itsasoari begira* dira. *bizitza bizitza da* bernardo atxagaren hitzen gainean eginiko abestia da, *do re mi*-k tradizioa du abiapuntu eta lertxundiren abestiaren hitzak jon maiak eginak dira.

## amarica plataforma behin betiko desegingo

arabako hainbat artista plastiko biltzen dituen amarica plataformak, iaz artearen eta kulturaren alorreko politika publikoak aztertzeke egin zituen jardunaldiei buruzko txostena aurkeztu zuen martxoaren erdialdean. hainbat erakunderen lana aztertu ostean, erakunde publikoek politika kulturalik ez dutela egiten ondorioztatu du amarica-k. plataformako kideen iritziz, erakunde horiek gero eta urrunago daude artistengandik eta jende xehearengandik. bestalde, duela lau urte sortutako amarica plataforma behin betiko desegingo dutela jakinarazi zuten.

## euskadi ikerketa saria aurrenekoz emakume bati

emakume batek jaso du aurten, lehen aldiz, ikerketarako euskadi saria. m. karmen gallastegi zulaika ekonomista eta katedradun



bergararrak gizarte zientzien eta humanitateen modalitatean irabazi du 2005 urteari dagokion saria. epaimahaiak azpimarratu ditu ingurune ekonomiaren alorrean egin dituen ekarpen nabarmenak, arrantzen sektoreari aplikatutako eredu bioekonomikoei buruzko haren lan aitzindariak batez ere. eusko jaurlaritzako lehendakari jua jose ibarretxek martxoaren 29an eman zuen 1996an eratu eta 36.000 euroko zenbatekoa duen saria.

## 2004. urtean 258 lurrikara izan ziren itoitz inguruan

espainiako geografia institutuaren artxiboaren arabera, 2004. urtean 258 lurrikara izan ziren itoitz inguruan. hots, urte bakar batean hainbat mendetan bezainbeste mugimendu gertatu dira itoitz inguruan. urtegia betetzen hasteko lanekin batera biderkatu dira lurrikarak itoitz inguruan. informazio iturri horren arabera, 1755. urtetik 2003ra bitarte, 342 lurrikara izan ziren herrialdean. 2004. urtean, urte bakarrean, berriz, 258. orduz geroztik, lurrikarak ez dira eten, ezta herritarren beldurra ere.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## silvio rodriguez hasierako kantuetara itzuliko da

orain dela hiru urte egiten hasi eta arrazoi batengatik edo besteagatik atzeratuz joan den



diskoa jarriko du aurki kalean silvio rodriguezek. 'erese que se era' du izena lanak, eta kantu berriekekin batera 1968tik 1970era bitartean egindako kantu zahar batzuk ere sartu ditu. halaber, film baterako musika ere bukatzen ari da nueva trovako ordezkaria.

## paco de lucia, morente eta marsalis gasteizko jazzaldian

gasteizko jazzaldiaren antolatzaileek 30. edizioaren behin-behineko egitaraua aurkeztu



dute. uztailaren 8tik 15era bitartean musikari handiak ariko dira principal antzokian eta mendizorrota kiroldegian. besteak beste, enrique morente, sonny rollins, sergio mendes, brad mehldau, paco de lucia eta wynton marsalis izango dira gasteizen. azken biak batera ariko dira mendizorroztan, uztailaren 11n.

## 0 eta 3 urte arteko umeen erdia sare publikoan matrikulatuta dago

eusko jaurlaritzako hezkuntza sailaren datuen arabera, araba, bizkaia eta gipuzkoan 0 eta 3 urte bitarteko umeen erdia sare publikoan dago, %52,61 hain zuzen ere. hala ere, herrialde bakoitzeko ehunekoak nahiko ezberdinak dira, udal haur eskolen sarearen garapenak zerikusi handia baitu datu horietan. hala, araban umeen %70 ikastetxe publikoetan daude. bizkaian sare pribatuak du indar gehien eta gipuzkoako sareak, berriz, nahiko parekatuta daude.

# ISLANDIA

[erredakzioa]



## Ice Land

[www.begizta.net / 2005-12-09]

...hotza eta beroa, bizia eta hila, suzkoa eta izotzezkoa, gordina eta xamurra, txuria eta beltza, zigortua eta mimoz zaindutakoa, geldoa eta jaizalea, irekia eta barnerakoa, bikingoa eta modernoa, garestia eta are garestiagoa,.... Islandia horiek guztiak eta deskribatu ezin daitezkeenak ezagutzeko parada izan dugu han igarotako 10 egunetan. Amaigabeko kontraste eder batean...

"Horrela hasi nuen Ekogaiaren proiektuarentzat eginiko Islandiaren inguruko kronika. Orain 2 urte igarota eta denboraren perspektibaz ikusita, berresten dut esandakoa eta esandakoari hauxe gehitzen diot: bidaiatzea maite dutenek ezin dutela hura ikusi barik mundu hau utzi. Patrika ondo beteta izanez gero noski... paisaiak bezain ikusgarriak dira prezioak eta".

## Strokkur

[www.begizta.net / 2006-03-14]

"Atzoko basamortutik gaurko eremu bolkanikora. Irudian Islandiako geysirrik aktiboena, Strokkur izenekoa. Bere alboan munduko Geysir guztiei izena ematen dien Geysir handia dago. Gaur egun ia ez-aktibo dagoena gizakiaren eskuaren eraginagatik. Izan ere, bere garaian turisten nahia asetzeko elementu kimikoak botatzen zizkioten erupzioa eragiteko.

Horrek antza, Geysir erraldoia haserrarazi eta denboraldi luze baterako erdi-lozorroan geratzea erabaki zuen. Orain oso gitxitan uzten baitu bere ur-iturriaz gozatzen.

Strokkur hau aldiz, minutu gutxiro 30 metrotako ur txorrotada beroa eskeintzen du, airean azufre usain ikaragarria utziaz.

Bertan egin genuen bideoa editatzen bukatzean ea hemen paratzerik dudana. Ikustekoa baita".

## ERREZETA

### TUTUAK

[diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

#### > OSAGAIAK:

- Irina: 500 g.
- Esnea: 250 g.
- Olia: 125 g.
- Gatza: 10 g.
- Aromak



#### PRESTAKUNTZA

Irina bahe batetik pasa ondoren sumendi itxura emango diogu. Erdian gatza ezarriko dugu.

Esnea, olia eta nahi ditugun aroma hautsak gehituko dizkiogu. Orea oratuko dugu, ore leuna eta homogeneoa lortu arte.

OREARI PAUSATZEN UTZI. Oreak irin apur bat botako diogu, eta haizearen babesean jarriko dugu, leku fresko edo hotz batean, +5 °C-ra.

MOLDEKATZEA. Arrabol batekin orea ahalik eta gehien zabaldu, apur bat koipeztatutako mahai baten gainean. Hobe da orea zati txikietan zatitzea, errazago zabaltzeko. Horzdun gurpil bat erabiliz zerrenda txikiak egingo ditugu, ez oso zabalak. Ore zerrenda tutuaren moldean biribilduko dugu, gainjarriz; amaieran, gogor estutuko dugu ongi itsats dadin eta frijitzerakoan orea ireki ez dadin. 160°C-ra frijitu (erdi eginda daudenean buelta eman).

Tutusak pastel-kremarekin bete eta apaindu.



[cristina fernandez blanco]



## HISTORIAZUTABEA

ARAMAIOKO MARTIN  
ALZAGA (ETA III)

[erlantz urtasun]



Kaixo, irakurle. Oraingo honetan gure arbaso baten berri eman nahi dizut. 1755ean jaio zen, hots, Ruper Ordorikaren aspaldian, eta Martin deitu zioten. Garai hartako Aramaioko bizilagunak "naturales bascongados", "de vascuence cerrado" zirela baieztaturik dago. Izan ere, XVIII. mendearen erdi aldean arabar lautada osoa euskaraz bizi baitzen, Mendialdea, Uda-Trebiño eta Añana alderdietako herrietan, orduko hizkuntz muga zegoelakotz kokaturik.

Bada, tikitandik Martin amerikarra dugula dirudi. Paper zaharren arabera 1795ean, hau da, frantses iraultza zelarik eta Alzaga jaunak berrogei bat urte zuela, goi mailako politikagintzan murgiltzeko aukera izan eta Buenos Aires hiriko alkate izateko hautagai agertu zen, baita eserlekua bereganatu ere, erabakia bere aldekoa izan zelakotz. Arabar euskalduna, hortaz, urruneko kolonia hartako pertsonaia nagusiaren gisa atzemanen du historialariak.

Gaixotasun larri batek jota, baina, kargua utzi behar izan zuen. Handik lau urterat, halere, eta osasun arazo horiek gainditurik, bertze betebeharren jabea zen, kontsuletzeko agintaritzarenak, eta bortz urte igarotzerakoan, 1804an, lehenago galduriko alkatetza berreskuratu zuen.

Dena den, Europa kiskaltzen zuen gerra harat ere heldu zen. Ingelesak kostaldea eraso eta Martin Alzaga babes funtzioetan era sutsuan aritu zela idatzi da. Bere asmoa, datuak datu, ez zen eskualdea defendatzea Espainiak zuen kolonia metropoliaren onerako salbatu nahian, bai zera, ingelesei irabazi ondoren espainiarrak handik kanporatzea eta independentziaren erdiestea baizik. Alta, espainiar, frantses zein ingelesengoen aurka azaldu zen, europear nahiz amerikar herrialde bakoitzak bere askatasuna behar zuelakoan.

Hori guzia tarte, 1810ean atxilotu zuten Argentinako aramaioar seme hau. Bera bizi zen lurralde hartan espainiar militarren aurkako matxinadaren antolatzaile garrantzitsuen zela leporatu eta epaitu egin zuten, erruduna zela ondorioztatzeko. Bi urte pasa eta 1812an urkatu egin zuten.

## MIKEL CASTRESANA (GASTEIZ): "ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHA?" (IV)

Eta laugarrenean jarraitzen dugu, ai ene, Mikel Castresana gasteiztarra ere biziki interesaturik.

Tira, ba, agiriak irakuriz gero egungo "Lecamaña" tokia XIII. mendean "Lezamaia" moduko zerbait zela pentsatu beharko genuke. Ez harritu, "Leorza" ingurua "Elorzaheia" idatzen baitzuten duela mila urte. Hor dugu ere garai bereko "Bahaeztu", gurean "Maeztu" dioguna. Baina aurkakoa ere gertatu zela ezin ukatu, "Madaria" salbatu baita jadanik X. mendeko eskribau batek "Dobaltia" bihurtu nahi zuen arren. Satrustegi jaunak erran zidanaz, euskararen egoera desastrea baino, miraria delakotz! Ez baitugu galdetu behar zergatik geratu zaigun hain esparru tiki, pairatu duguna ikusirik salbatu dena garaipen handia dela oihukatzea baizik!

Zer erranik ez "Markina" herri tipikien. "Markina Goien" zitekeena "Marquina de Suso" zen duela mila urte, bertakoez erdaraz ez bazekiten ere. Eta "Markina Barren" edo, "Marquina de luso", gero ezagunagoa zaigun "Marquinez" bihurtuko zutena. Gehiagorik? Ez ote da gehiegi tumatxa? Bon, bon, konforme, baina ez orain Mikel, hurrengoan izanen.

[ ? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es ]

## Historia

# Galindez: 50 urte desagertuta

Zaila da topikoetatik irtetea duela 50 urte New Yorken desagertu zen Jesus Galindezen nortasunaren eta garaiazen gorabeherak aztertzeko. Beharbada, joera horrekin hausteko, Galindez gure desagertuetako bat –ospetsua edo ez– dela azpimarratu beharko genuke, argentinarrek, txiletarrek, guatemalarrek edo bosniarrek, historia politikoko tratatueta aztertzen dituzten horiek dituztenen antzekoa. Gure artean desagertutakoek ere badute izenik: Candido Saseta, Jose Miguel Etxeberria, Jose Ariztimuño, Popo Larre, Eduardo Moreno eta... Galindez; herrikideek ere ahaztu egin dituzte, eta urrutira begiratzen dute beste zitalkeria batzuk argitu nahian, unibertsaltasunaren izenean.

[iñaki egaña. nabarralde]

Eta zaila da xehetasun guztiak aletzen hastea, izan ere, Galindez ez baitugu ezagutzen gerra hotzaren hasieran AEBko euskal ordezkaria izateagatik, Madrilan edo Bartzelonan gerra zibilaren garaian euskal komunitatea antolatzeagatik, zuzenbideko liburuak edo euskal erreferentziakoak idazteagatik, edo Leonidas Trujilloren diktadura dominikarra gogor kritikatzagatik. Ez da ospetsu egin arrazoi horiengatik, baizik eta Ipar Amerikako Estatu Departamentuko agentea, Edgard Hoover-en FBI n txertatutakoa, izateagatik. Eta ezaugarri garrantzitsu horrek bere nortasunaren gainerako alderdi guztiak ezkutatu ditu.

Ezaugarri hori abiapuntutzat hartzen badugu, eta gure garai hauetatik kanpo dagoen edozein konpromiso justifikatzeko

asmorik gabe, esan beharra dago Galindez Bigarren Mundu Gerran eta gerra hotzaren hasieran Washington-en zerbitzura lan egin zuen euskal agenterik onenetakoa izan zela. Agirre lehendakariak Franklin Roosevelt-en taldearekin 1942. urtean egindako hitzarmenen ondorengo agentea. Batez ere EAJ alderdiak, eta baita PSOEek eta talde errepublikanoek ere, zerbitzu sekretu iparramerikarren alde egindako apustua izan zen, Hitler eta Mussolini buruzagien gainbeherak beste erregimen batzuk, tartean Francorena, atzetik eramango zituen itxaropenez.

1953. urtean, Eisenwoherrek, Vatikanoko eta gerra hotzeko bando urdineko beste erakunde batzuek Franco onartu zutenean ("putakume bat da, baina gure putakumea da" filosofiari jarraiki, Roosevelt berak Antonio Somoza Nikaraguako diktadoreari buruz esandakoan oinarrituta), euskaldunen

eta iparramerikarren arteko harremanak asko hoztu ziren, eta Jose Antonio Agirre, Jesus Galindez eta horien alderdikideak, Estatu Departamentuaren arabera, "nazionalista itsu", "errefuxiatu izateari utzi nahi zioten errefuxiatu", etab. bihurtu ziren. Eta sasi adiskide bihurtu ziren, etsai izateko arriskuarekin. Gainera, urte horretan bertan McCarthy senatariak esan zuen berez bihurtzen ez zena automatikoki bihurtzaria zela. Desagertu baino bi urte lehenago, zerbitzu sekretuak Galindez eta horren ingurua sakonki ikertzen hasi ziren. Eta bahitu baino astebete lehenago, Galindezek Washingtonera bidaiatu zuen Estatu Departamentuaren aginduek jasotzera.


Galindez eta Agirre deserosotasun horren punturik gorenak izan ziren. Horregatik, ez da harritzekoa Galindezen desagertpena CIArako lan egiten zuten



agente ohien enpresa batetik bideratzea (Robert Maheu). Enpresa hori bera kontratatu zuten gero Fidel Castro hiltzeko, eta Watergatean inplikaturik egon zen. Ezer gutxi esan da horretaz.

Eta ezer gutxi esan da garrantzi handiko beste kontu bati buruz ere: Leonidas Trujillok, bere diktadura salatzeagatik ustez Galindez bahitzeko agindua eman zuenak, New Yorken bere interesak defendatzeko zuen bulegoari buruz hain zuzen ere; bulego hori demokraten aldeko Franklin Roosevelt semeak zuzentzen zuen, euskaldunak babestu zituen lehendakariaren semeak. Horregatik, Galindezek bizirik jarraitzen zuela eta noizean behin munduko edozein tokitan ikusten zutela zabaldu zuten. Roosevelt semea agerian gelditu zen. Eisenhower errepublikanoak ez zuen utzi desagertuaren ikerketa bertatik ateratzen. Baina The New York Times egunkariaren galderen aurrean publiko egin zuen bere agindua. Zer dela eta halako garrantzia? Munduko nazio boteretsueneko lehendakariak nolatan eman behar zituen mapan ere agertzen ez den herrialde bateko ordezkariari buruzko aginduak? Desengainu gehiago: euskaldun honek Trujillori buruz egindako tesiaren Txileko argitaratzailearen (Alfonso Naranjo Urrutia) emaztea ere aldi berean bahitzen saiatu ziren, baina hori ere ez zuten ikertu. Eta Franco difamazioak bota eta bota. Nork defendatuko zuen, bada, Galindez?

Gai horiek oso garrantzitsuak izan arren, Galindezi buruzko gainerako datuak ez ditugu ezagutzen, gaur egun historialariok XX. mendeko pertsonaia honi buruz beste askori buruz baino datu gehiago izan arren; datu horietako batzuk eztaba daezinak dira, eta inplikazio lotsagarriak dituzte. Galindezek izan behar zuen Agirreren ondorengo naturala, lehendakariaren beraren hitzetan. FBIk, Galindezen nortasunari buruzko txosten batean, "Agirre baino ezkerriagoa eta toleranteagoa" zela adierazi zuen. EAJren baitan, horren ekintza batzuk ez zituzten begi onez ikusi, Washingtonekin aliatutako Latinoamerikako erregimenen kontrako erakundeengana eta pertsonengana hurbiltzen zelako. Anton Iralak, New Yorken bere aurretik izan



zen euskal ordezkariak, Galindezen nahikeriak kritikatu zituen, eta kate motzean lotzeko eskatu zion Agirreri.

Baina ezinezkoa izan zen 40 urterekin desagertu zen gizon honen espiritua aldatzea. Bere inguruan halako gutxi zegoen, katoliko txarra izan baitzen Galindez, seme bihurria (bere aita faxisten aldekoa zen), maitale sutua, ezkongabea, telebistako serie batean ateratzeko moduko abenturak izan zituen (FBIk euskaldun honen bikote izandako bederatzi emakume identifikatu zituen, eta Francok, iraintzeko, homosexuala zela zabaldu zuen)... Madrilgo euskalduna zen, arraza nahasikoa, eta

beste gauza guztien gainetik, politikari harrigarria.

Gaur, Galindezen bizitzako alderdi guztiak bi gerra handik baldintzatzen dituzte, 36koak eta ezkutuko gerra hotzak. Batak bestera eraman zuen. Mola eta Franco altxatu izan ez balira, Galindez abokatu euskal estatutua defendatuko zuen Madrilén. Helduaroan eleberri kostunbrista batzuk idatziko zituen, eta arrazoi biologikoen eta estatistikoen arabera, mendea aldatzean hilko zen. Hala ere, uztailaren 18ak guztia aldatu zuen betiko. 21 urte zituenean euskal komunitatea antolatu zuen Madrilén. Familia oneko gizon hark, Justizia Ministerioan Irujoren aholkulari izan zenak, kontzentrazio esparru batean (Gurs) amaitu zuen penintsulako ibilbidea. Bulegoko kaobazko mahaitik, Madrilgo inguru dotoreenetik (Salamanca auzoan bizi zen), mila pertsonak partekatzen zituzten bost letrinetara igaro zen. Bermuta edatetik oka egitera.

Kasualitateak, berriro ere, ziurrenik inoiz ezagutuko ez lukeen herrialde batekin, Dominikar Errepublikarekin, bat egitea eraman zuen. Agirreren ezinegonak eta Manu de la Sotak Biarritzerantz itzultzeko zuen gogoak gizadiaren patua erabakitzen den hiriko ordezkari bihurtu zuten: New Yorkeko ordezkari. Gehiegizko pertsona bakar batek –horixe izan zen bere kasua– jasan ahal izateko. Alderdiaren diziplinak FBIko agente izatera eraman zuen, EAJrentzat Estatu Departamentuko funtsak erabiltzera. Baina gerra hotzak adiskide deseroso eta arriskutsu bihurtu zuen. Eta Agata Christieren fikziozko pertsonaia horren (Samuel Ratchett –Orient Expresseko hilketa) heriotza bera izan zuen, European barna bidaiatzen zuen tren bateko bidaiari bakoitzeko sastakada bat jaso zuen pertsonaia horren heriotza bera. Eta bidaiari guztiak libre gelditu ziren, gizadiari mesede egin ziotelako.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, mende erdi geroago Galindez oraindik pertsonaia deserosoa dela uste dut. Beharbada horregatik interesatu zait. Nork daki. Distantziak, zorionez, beste ikuspegi bat eskaintzen du, 1956. urte hartatik urrun dagoena. •

KOLDO FDZ. DE LARREA:

# "Denborak esango digu UCI Pro Tourra ona ala txarra den"

Euskaldun asko daude tropelean, baina gutxi, oso gutxi sprinterrak. Koldo Fernandez de Larrea zurbaotarra horietako bat dugu. Bere hirugarren denboraldian profesionaletan gauza garrantzitsuak egitea espero du, batez ere iaz, lesioak zirela eta, izan zuen urte zoritxarrekoaren ostean. Paris-Nizatik heldu berria hiru aste pasako du Euskal Herrian entrenatzen eta bere herrian harrapatu dugu. Apirilean Frantzia eta Belgikara abiatuko da horko klasiketan parte hartzera, eta gero Italiako Giroa, bere lehenengo handia, egingo du.

[david alvez]

**Nola hasten da Zurbaoko mutiltxo bat txirrindularitzan?**

Guztion moduan suposatzen dut. Oporretan. Araia joaten ginen, horko federatu batzuekin hasi nintzen ibiltzen eta irabazten nienez, ba probatu genuen ea zer moduz nenbilen lasterketan eta hor hasi nintzen serio.

**Orain dela hiru urte iritsi zinen profesionaletara, nabarmenak izan ziren aldaketak?**

Ez nituen asko nabaritu; uste dut desberdintasun gehiago daudela gazte-mailatik afizionatueta. Horra 18 urterekin pasatu behar duzu derrigorrez, eta bat-batean topo egiten duzu 23 edo 24 urteko txirrindulariekin; gainera Euskadin afizionatueta dagoen maila oso altua da.

**Bi urteotako balantzea nolakoa izan da, espero zenuena?**

Gazi-gozoa esango nuke. Lehenengo urtea oso ona izan zen eta postu on batzuk ere lortu nituen; gustura geratu nintzen.

Bigarrenean itxaropentsu hasi nintzen, aurreko urtekoa hobetzeko asmoz; baina dena oker atera zitzaidan. Mallorcan lepauztaia apurtu nuen; errekuperatu eta gero Landaluzek irabazitako Dauphine-Liberen-etik bueltatzean Durangon

istripu bat izan nuen; berriro hastera. Abuztuan ondo zihoan dena, Espainako bueltara joateko postua irabazita neukan, baina Beneluxeko itzulian berriro ere istripua... ahazteko urtea izan zen benetan.

**Urte gogorra pasa eta gero, nola hasi zara aurtun, zeintzuk dira helburuak?**

Aurtun memento gauzak ondo doaz. Maiatzean Giroa egingo dut, eta ilusio handia daukat. Baina lehenago klasika batzuk egingo ditut, Paris-Roubaix, Flandes Itzulia eta Gante-Wevelgem, besteak beste; nahiz eta hemengo txirrindulariak lasterketa horien beldur izan, nire ezaugarriak direla eta espero dut emaitza onak ateratzea.

**Zure ezaugarrietako bat sprinterra izatea da, ez da hori arraro xamarra, hemengoa izanik?**

Pixka bat bai, baina uste dut hemen ez dagoela sprinter gehiago orografia dela eta. Gainera afizionatueta sprinter ona bazara baina mendiak ez baidituzu ondo zeharkatzen, oso zaila da profesionaletara pasatzea.

**Hemen zaletu asko daude txirrindularitzan; baita korredoreak ere; UCI Pro Tourrek zer eragin izan dezake horiengan?**

Afizionatu taldeei dagokienez ez dut uste



txarrerako izango denik. Hor sortu dira talde "kontinental" batzuk. Aukera sortzen da profesioaletara pasatzeko; bestela oso zaila izango litzateke Pro Tourreko talde batean zuzenean sartzea.

Eta gero talde "kontinental" entzat ba agian okerrago, batez ere ez daudelako karrera asko haiantzat, adibidez Orbea-koek ez dute "egutegi" handia egiteko aukera.

**Eta doping-aren afera, nola hartzen duzue barrutik?, badirudi beste ikuspegi batetik begiratzen dizuetela...**

Horri buruz zer nahi duzu esatea, amorrua ematen dit beti hor izateak. Uste dut txirrindularitzan, beste kirolekin konparatuz, beste modu batean begiratzen digutela, oihartzun handiagoa du komunikabideetan, eta beti dago zalantza

hori zaletuen artean. Kirolik kontrolatuena da, edozein egunetan etor daiteke medikua analisiak egitera..., hori beste kirolekin ez da gertatzen. Adibidez neguko azken olinpiadetan kasu batzuk egon dira eta jendea ia ez da enteratu, baina txirrindularitzan suertatzen bada...

**Eta hori aldatzeko, zer egin daiteke?**

Beno, horretarako sortu omen da UCI Pro Tourra. Baina denborak esango du antolakuntza hobea izan daitekeen. Interes asko dago tartean, estatu bakoitzak bere "zerrenda" dauka; badago gauza asko konpontzeko, edo behintzat aldatzeko.

**Zutaz mintzatuz, nolakoa da Koldoren bizitza denboraldian zehar?**

Bizitza lasaia eraman behar dut; entrenamenduak, atsedena... eta hortik, lagunekin gutxi atera. Entrenamenduak hemengo korredoreekin egiten ditut, Beloki eta afizionatu batzuekin; ibilbide batzuk eginda dauzkagu eta oso giro polita dago gure artean.

**Orduan, hemengo lasterkariekin harremana ona al da?**

Bai, oso ondo moldatzen gara, azkenean lagunak egiten dituzu denbora gehiago ematen dugunon artean; eta hori batez ere entrenamenduetan sortzen da.

**Eta neguan?**

Orduan 'desfase' pixka bat daukagu, gozatzea dagokigu. Ni adibidez, Gabonzaharretik urrira arte ez naiz ia ezer ateratzen. Orduan, aste horiek aprobetxatu behar dituzu.

**17 urteko gazte bati, txirrindularitza gustatzen zaiona... zer esango zenioke?**

Beste kirol batzuk ere praktikatzeko; txirrindularitza gustatzen baldin bazaio jakitea oso kirol gogorra dela baina aldi berean betetzen zaituena; kirol honek oso balore desberdinak erakutsiko dizkiola... eta aurrera jotzeko.

**Euskal Herrian dagoen bezainbesteko zaletasunik beste lekutan ere ikusten da?**

Bai, bai. Belgikan ikaragarria da. Esango nuke hemen baino gehiago bizitzen dituztela karrerak; izugarria da.

**Amaitzeko, aurten Mayoren Tourra izango da?**

Ba ez dakit zer esan, jenio bat bezalakoa da Iban; nik uste dut berak bakarrik dakiela nola dabilen eta nola helduko den Tourrera. •



**KOLDO FDZ. DE LARREA**

Jaiotze eguna: 81/09/13

Lekua: GASTEIZ (ARABA)

Debuta: 2004

Taldeak:

Orbea-Olarra-Consultec

Euskadi Fundazioa

Euskaltel-Euskadi

## di-da

Telebistako saioaren bat?

**Los Serrano telesaila asko gustatzen zait.**

Prentsa irakurtzen duzu?

**Bai normalean kirolak irakurtzen ditut; amaieratik hasten naiz.**

**Gara irakurtzen dut normalean.**

Eta liburuak...?

**Bai, beti eramaten ditut; gainera oso urduri naizenez irakurtzea gomendatu zidaten.**

Play-station eramaten duzu mailetan?

**Ez, badaukat baina ez dut eramaten urduriago jartzen nauelako.**

Parrandak egiteko unean, non?

**Neguan eta Gasteizen edo Durangon, neska-laguna horkoa baita.**

Bizitzeko hiria edo herria?

**Herria, beti bizi izan naiz bertan.**

Amets bat txirrindularitzan?

**Munduko txapelketa irabaztea.**

Gustuko duzun lasterketa?

**Edozein txirrindularik bezala, Frantziako Tourra eta gero Paris-Roubaix.**

Gustatu zaizun txirrindularia?

**Txikitan Indurainek markatu gintuen guztiok.**

Eta egungo bat?

**Tom Boonen belgiarra.**



[arg.: edorta sanz]



IÑIGO SARASOLA

## >kultur errota

>>>FILM LABURRAK: 'ITXOITEN' & 'ESKUAK UKABILAK'

mikel saenz de santa maria eta jon castillo gazte gasteiztarren eskutik  
apirilak 25

gasteizko parral tabernan, 20:30ean



## >geu gasteiz mendi-taldea (geurekin mendira) / 06

>>>APIRILAREN 9AN

Urieta (1133 m)

goizeko ibilaldia

arduraduna: Edurne, 945146296

irteera guztiak: Lovaina plazatik (gasteiz) /  
goizeko 9:00etan

## >kangeuroak

kangeuro gisa aritu nahi baduzu emaguzu zure izena  
eta telefonoa, eta zehaztu zure ordutegia: 945222153  
/ geugaste@grn.es

aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua  
eman.

ostiral, larunbat eta igandeetan

Berrbizne Urzelai-652711705

arratsaldetan eta asteburuetan

Idoia-635748442

## >antzerkia:

### antzerkiola imaginarioa

>>'KAPUTEN KANTA'

gasteizko aldabe g.e-ko antzokian, 20:30  
sarrera: 3 euro (6 euro, 30 urtetik gora-  
koek)

geu elkarte & gauekoak

www.geugasteiz.com /

www.gauekoak.com / kolore biziak elkar-  
tea: 945204009



## >GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDAREN BERRIPAPERA HILERO JASO NAHI?

BIDALI GEUGASTE@GRN.ES HELBIDERA ZURE MAILA, "GASTEIZKO  
EUSKARAREN AGENDA JASO NAHI DUT" ADIERAZIZ.



## >iragarkitxoak

✓ argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edo-  
zein ospakizunetako bideoak editatu ere. emaitza profesionala, modu  
onean. tfnoa: 617242660 / e-maila: zapore@euskalnet.net

✓ ikastolen elkarteak aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu uztailan egingo diren  
euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako. beharrezkoa: euskalduna izatea, aisialdian  
esperientzia izatea eta ingelesa edo frantsesa menderatzea (udaleku horien kasuan). izena  
emateko aalberdi@bie.ikastola.net-era idatzi edo 94 4354340 zenbakira deitu (amaia)

## >gasteizko irakurle kluba / 06

>>MAIATZAREN 4A, OSTEGUNA

Xabier Montoia, 'Hilen bizimoldea' trilogia: Hezur gabeko  
hilak, Blackout eta Elekrika, Susa 1999 eta 2004

dinamizatzailea: iban zaldia

lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13 -gasteiz)

ordua: 20:00

>>MAIATZAREN 25EAN MINTZAGAI IZANGO DEN LIBURUA:

Jaroslav Iwaszkiewicz, Wilkoko andereñoak, alberdania-elkar 2004 [1933]



GASTEIZKO  
IRAKURLE  
KLUBA

GEU

www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | maketa: dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | umorea: inigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: karmele jaio, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, joseba ossa, inaki egaña eta diocesanas-mendiozorrotzako ostalaritza eskola. | publizitatea: aldizkariako batzordea eta edurne begiristain | sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

KARMELE JAIO

['amaren eskuak']

# “KONSTANTZIA LEZIOA IZAN DA NIRETZAT NOBELA IDAZTEA”

‘Hamabost zauri’ ipuin liburuaren ostean, lehen eleberria argitaratu du Karmele Jaiok (Gasteiz, 1970), lgartza bekaren laguntzaz idatzita. ‘Amaren eskuak’ liburuan ama-alaba harremanak baliatu ditu belaunaldi ezberdinetako pertsonen bizipenen antzekotasunak islatzeko.

[edurne begiristain]

**Erronka handia izan da eleberrirako jauzia ematea? Eroso sentitu zara?**

Erronka izan da generoz aldatzeak lan egiteko modua aldatzera ere behartu nauek. Jakinmina nuen nobela idaztea zer zen jakiteko eta orain badakit. Eta esan behar dut nobela idaztea ez dela ipuinak idaztea baino zailagoa ez eta errazagoa ere. Ezberdina da, oso ezberdina. Konstantzia lezioa izan da niretzat nobela idaztea. Eta honekin batera, idatzi bitartean ikuspegia ez galtzeko ahalegina biderkatzera behartu nau. Baina, beste alde batetik askatasun handiagoa ematen dizu. Eskuzabalagoa da nobela idazlearekin, batzuetan bidetik irteteko aukera ere ematen dizulako (betiere bidera bueltatuko zarela hitz ematen badiozu).

**Zer kontatu nahi izan duzu liburu honetan?**

Nobelaren azaleko istorioak bi belaunaldi ezberdinetako emakumeen istorioak kontatzen ditu eta istorio horiek aitzakia bezala hartuta, azaldu nahi izan dut belaunaldi ezberdinetako pertsonen bizitako testuinguruak eta garaiak oso desberdinak diren arren, zein berdintsuak diren hainbat eta hainbat gauza. Hau da, garai guztietan badituela gizakiak halako gai eta kezka nagusi batzuk beste guztien gainetik. Eta kezka eta gai nagusi horiek dira maitasuna,

bizitza, heriotza... Eta gai horrekin batera, badago beste bat azpimarratu nahi izan dudana. Bizitzari aurrez aurre begiratzeko beharra. Bizitzako arazoan aurrean kikilduta bizitzearen kontrako garrasia edo deia ere bada nobela.

**Eleberria sentimenduetan dago oinarrituta. Sentimentalismoan erortzeko tentaldiari ihes egitea lortu duzu, ordea.**

Bai, kontu handiarekin ibili naiz zentzu horretan. Sentimenduz idatzitako nobela da baina etengabe aritu naiz neure burua kontrolatzen gehiegizko sentimentalismoan ez jausteko. Ez dakit lortu dudana.

**Ama eta alabaren arteko harremanaz gainera, badira beste gai batzuk ere: senar-emazteen arteko komunikazio eskasa, gatazka politikoak..., zer-nolako garrantzia dute gai horiek istorioan?**

Garrantzi handia dute. Istorioaren atzealdea dira baina garai eta egoera baten lekuko diren neurrian oso garrantzitsuak dira. Garrantzizkoa iruditzen zait atzealdea erakustea, ezinbestekoa, arrazoi nagusi batengatik: azaldu nahi izan dudalako gizakia halabeharrez moldatzen dela tokatzen zaion egoera eta testuingurura, testuinguru horren legeetara egokitu behar izaten duela halabeharrez.

**Zein neurritan dago Karmele Jaiok liburuaren protagonistaren atzean?**

Edozein idazle bere protagonisten atzean dagoen neurri berean. Esan nahi dut badaudela nobelan bizitzatik lapurtutako hainbat eta hainbat gauza. Baina bizitzatik lapurtu ezean, nondik lapurtu behar du bada idazleak? Nerea kazetari izatea aukeratu nuen nik mundu hori ondo ezagutzen dudalako eta ezagutza horrek egoera zehatz asko azaltzeko orduan laguntzen didalako.

**Itsasoak garrantzi handia du liburu honetan, bizitzaren metafora bailtzen erabiltzen duzu ezta?**

Bai, itsasoa oso presente dago. Garrantzi



[arg.: edorta sanz]

handia du itsasoak nobela honetan. Bizitzaren metafora da, diozun bezala. Orain harro dago, orain bare, orain marea gora, orain marea behera... Eta uraren gainean gu, balantzaka alde batetik bestera, ura irensten batzuetan, uraren gainean lasai etzanda bestetan...

**Zer nahi zenuke irakurleak sentitzea liburua irakurtzean?**

Esan dut liburua sentimenduz idatzi dudala. Sentimenduren bat piztea nahiko nuke eta norbaitek bere sentimentuak eta sentsazioak hor islatuta ikustea. Segundu batez bada ere. **Proiektu berriak buruan?**

Bai. Urtebetez nobelan murgilduta egoteak berriz ipuinak idazteko sekulako gogo piztu dit. Beraz, horretan ari naiz, berriz ere ipuinak idazten.●



INSTITUTO POLITÉCNICO

**JESUS OBRERO**

INSTITUTU POLITEKNIKOA



# BATXILERGOA

## ZIKLOETAKO PROBA LIBREAK

**MATRIKULA IREKIA MAIATZEAN / A, D EREDUAK**

**BIDERATZE TEKNOLOGIKOA  
NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
GIZA ZIENTZIAK  
GIZARTE ZIENTZIAK**

**- UNIBERTSITATEAN EDO LAN MUNDUAN HASI ARTEKO HEZKUNTZA**

**- IKASKETA ETA LAN BIDERAKETA**



**Francia 32, 01002-Vitoria-Gasteiz**  
**Tel.: 945 000 333 [www.j-obrero.es](http://www.j-obrero.es)**  
**[jesusobrero@j-obrero.es](mailto:jesusobrero@j-obrero.es)**



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Leire Gomez de Segura,  
Psikopedagogiako ikaslea.

*"aniztasunaren erronka ulertu eta berari  
erantzutea, oso onuragarria da"*

